solozabal'tar paulin

# gizadian

*Nihil obstat:*
Lic. D. JESUS GARAY
censor erro.

*Imprimalur:*
*DR.* LeON M.' MARTINEZ
Vicario General
17 febrero 1972

Dep Lo legal: BI 1.227 - 1972

GRAFICAS BILBAO — Gorde niz, 28 — BILBAO

# ITZ BI

Bai, itz bi hakarrik eskatu daustaz P. Solozahal'ek. Ni, ostera, diñoenez —norbera ezpaita konturatzen sarritxiliña izan, itz-jario uts. Origaitik, naizta neure buruari biurraldi bat emon, izkilimin gogaikarri ez izaten aleginduko naiatzu.

Eta zcrtako gura dauz Solozabal'ek aire itz bi? Poesi Liburu barria osotu dau, txorta barri bat (loa argitaratzen, eta ortarako bear ei ditu nire i z biok. Eusgarri lez? Eda aupagarritzat? Ez dau olakorik bear: lendik he naiko ezagana dozu euskal literatura barrutian. Lendik he ha ditu, gaiñera, olerki liburuak argitaratuta: «Uskeriak», «Urrchitsa» ta «Gizonetan». Orain laugarrena anen nai dausku; eraingoak, baita, bere zer apartekoa izango dau, mamiñcz beintzat: zatikakoa izango da, itz lauz ta neurtuz.

Liburua, orraitiño, erdia itz askatuan izmnda be, olerkariarena dan ezkero, cicrkitsua izan hear. Bakotxak daukana dau emoten: udabarriak bere joritasuna, txoriak bere kanta, ibaiak bere gardentasuna. Paulin'ek be bcre harma damosku kezkaz ta eziñegonez gaiñczka. Muin dardarati ori kukutu ba'leu, *ez* litzakigu poeta izango; gauzak eder ikusiko ezpalitu, ezingo leuke elcrka ri izenik duinkiro croan. Baiña orixe da gi, lumaz azaltzen dauskuzan zer guztietan.

Eta ori al da olerkari izatea? Bai. orixe dozu, ezpai barik, benetako olerkari izatea: barrea edegi ta gauzak eder hurutan jarri: ez da besterik. Geure argi-aldiak doguz gizasemeok, eta orduan, geuk zergaitik ez dakigula, baraca irakiten ipinten yaku; pertsona bat yaku sarri, gauza bat, jazoera bat, zio lez, cta zer orrek arrotzen dausku izatearen sakon guztia, olatu biurri batek itxas-ondoa

astindu ta irauli oi dauanez. Arimearen indar biak orduan —adimenak eta naimenak—, alkar besarkaturik, lan ixilla dagie barreneko beroaldi gozoan.

Ezta edozelakoa txinpart arteko beroaldi onen ekarria, begun txanbeliña baiño; labur: olerkia. Egiazko poesian, ain zuzen, iru gauza bear ditugu aintzat artu: lenengo, jatortasuna; gero, edertasuna, ta irugarren, zorroztasuna. Iru doaiok beite-, benetako olerkariaren jantzi dotore.

Gai oni buruz, Pedro Salinas espaiñar olerkariak, onela diño: «Niretzat olerkari zorrotza da, adibidez, Walter *Savage* Landor; ederrak, Góngora, Mallarmé, eta jatorrak, Donibane Gurutzeko, Goethe, Juan Kamón Jiménez. Guztiz alperrekotzat daukat olcrkien edo-ta olerkarien alkarrekiko balioari buruzko edozein eztabaita. Bardinbagea da olerki oro, bakarra, argi-izpia naiz ondar-alea bakarra danez».

Bakotxak dautzu bere arima; bakotxak dautzu gauzak somatu, ikusi ta azaltzeko era berezi-berezia. Onek daukanik, beraz, ez eskatu ari: are-pikor bi dira, txit ezberdiñak.

Arira etorririk, Solozabal'en poesia «ber: ta bere ingurua» dozu; bere arimatik urtena, bere barneak eta inguruak, giroak, sortaraziar Zer nai dozu geiago? Danok garala pizkat bertsolari, esan daroagur Ez dautzut ukatuko; baiña guztiok ditugun barne-muiñeko zauskadak, sentiduta be, olerkiz adierazten jakin bear da. Egiaz beintzat, elakoari deritxogu olerkari.

Olerkia tximista baldin bada, eosen, esku artean dozu, irakurle, tximista orren zartada bat, argi-erraiñu jarioka. Eder bekizu bere ikutu bizia.

Larrea'n, r972-III-15'an.

*AITA ONAINDIA*

# MAITASUN EZ-BARDIÑAK

Maitasuna ezer ta doairik ederrena da gizartean, baiña aldika dabil bakarrík, gizonaren inguruan. Biziaren bizi al-izateak, barru barrutik, eskatzen dautso gizonari onberatasuna ta biotz zekendunak ostera, gizadiari zor dautson maite adiguria, *ez* dautso emon nai. Miñez, sendoro, eskatzen dogu maitasuna, onoimen orregaz bizi izateko egiñik dagonak, nai ta nai ez, eskabide orren alde garrazi egin bear dau. Ezin ixildu leiteke. Zarata *ez* ba'dagi, iertu edo asarretu egingo da.

Maitasun bear izana ain aundia dalarik, arrigarria dana da, gizartean ain maitsun gitxi izatea. Bein norbere kutuncngandik banatu ezkero, iñork iñor ez dau ezagutzen, ez aintzakotzat gitxiagorik artzen. Aberatsak txiroekin ez dauka artu-emonik, ta aundikiak txikian jaramonik ez dautso egiten, bere inguruan ezin dau ikusi. Barruan zer jazoten jakon ezin jakin... Eza ta baietza burrukan.

Onaren baietza, beti, izan da gauza zailla' Baiña ori ta guzti be, maitasun bilta gizartera ba'geaz, bere geiago ta gitxiagoak izango ditu gizadiko mailla bakoitzean.

Umeen adin zetaira goazen. Urrintxotik begiratu ezkero, guztia zarata gozoa ta ongi-naiaren durundia datorkigula dirudi. Odola, bizi-bizi, ta nora-nai buttzaka dabe. Edozein jolasek, gogoz, dei egiten dautse ta elgeta orren leiz, pozez beteko dira. jolasaren kurutzarik, aurrezaz, ez dabe ikusiko; aren biotzak ba, osoan, doaz curen kidekoen ataitasunera. Ume sasoiari dagokion jokatuera jatorra da.

Edozein tokitan jotasak ataitasun giroa daroa. Eurengan oraindiño, ez dauke, aldien joan-etorriak emon oi diten elsipenik_ Biotz bigun eta burua barri dabe emengo

lokarricn cstenkadetatik. Baiña maltzurkeria ta norberekeria azeri zar gaiztoak izanik, lo, iñoz ez dagoz. Mamo baltz onek albait ariñen eurcganatu nai dime umeen barruak.

Nausikeri ta nerherekeriaren bidez poztu ta arrotuko ditu txikien arteko gangorduncnak_ Ta ekiñaren ekiñez, banaka-banaka, astintzen lortuko dau. Ondoren, umeteriaren arrean, bateren batzuk nabarmenduko dira curen lagunak zaPaltzen. Emendik sortuko dira barruko miñak, emon *ezin* lcikezenak. Ta era orretan ume biotza lenengo zauriak eta etsipenak bere lagunengandik artzen así da.

Ordurrte, barri barri. egoan la czek lakartu gabeko mitiia^; una eukan biotzean. hoya erian areri ta bere kideko lagunak maitasun sort-iturria bezela artzen zituan. "FI rkcrian n lenengo zirikada orrek arto ondoren, lengo, iagonceaeh uste osozkoak galtzen asi zan. Aurrerantzean bildur zan, ustegabeko coihenak.. nundik nora, agertu ta zirik:uuko ele eban.

Alan da guzti be, umeal; maitasun bidetik jarraitzen eban. Izan bere, urnerik geienak, geienetan, berez, egimaitale te on-zale diranez, maitasun bideari jarraiken naiago dabe. Bizitzako orle barrial: min barriak ekarriko dautsez ta eurak he ttaiztekericn bidez, hata bestcarentzat azerikunse izango dira. Era cuelanr geldi geldi, hielen]: aldatzen doaz.

Umeak orain, cz dira bardin. Lengo biotz zabaltasuna ateak izten doa. Biidur da. SusIno txarra artzen dau, orain, askoren jokabidetan. Ikusiak eta ikasiak besterik dinetso. Berezko lege ederra, maitasunaren bidea burrukan sartu da. Bidez, cgia, ortxe, agertuko da, ta zuzentasuna norengan dagon i;:usiko dabe.

Zuzenbidcz jokatzen dan orduan, umeak barriro, biotza zabal egingo dau. Umearoa, cgiaroa ta maitasun-aroa bat biurtzen dira, ondo, iokatzen danean.

«Eritxirik ez dot emon nai, Iorrak ekarri lcikidaz-ta». Gizon koldar batek arrian xixclatu aiñako esaera aula, baiña gizon sendoak ezin onartu lei edu orretako makalkeria. Emen etsaigoa asmetan dogu. Aulkcria jarri da gizontasunaren aurka ta burruka onen bidez arazo aundia sortu da.

Koldarkerizko illuntasun onetan argia ta indarra bear dira. Illun eta koldarkeritik ezer *ez* dator, biziaren ukatzea ta amaiera dira curen ondorenak. Illuna utsa, eza da. Betiko gabak ezer una danik ezin emon leikigu ta gure barrua, ostera, naigabet u egiten dau.

Baltzaren anai dan koldarkeriak norbere maitasun ziztrin bateri begiratuten dautso. Koldarra duna, berez, arpegi emoten ez da auzartzen. Makalkeri au baleite, baba be, maltzurkeri zatar bategaz inguratuta egotea. Ta orduan zer? Laguna pizti gaizto biurtuta dabil, norbere buruari begiratuta bakarrik. Zaletasun nerbcrekoi au, egundo, ongille ez da izan, erro iguingarriak ditu, ta makal itxurak agertukeran, bere onura billa dabil, sapoki sapoki, barrutik, naita jokabide orrek askoren ondamendirako izan.

Biziak berenca, argia ta indarra eskatzen ditu. Nai dala laguna izan, nai jazoera, nai igikizuna, nai toki bat izan, ez iñor ta ez caer argi ta indar barik ez dago.Eusgarri bi onek gabe iñork ezingo dau eiñcan iraun. Zelaian bezela basoan depon landareak, bere jaiokcran, giro un bat eskatzen dau. Argiz, curiz la aizez ta atxurrcz inguru samurra ez bulleno, nekez jaioko da landarea sortze erkin bategaz.

Izadia minduta agertzen da, egin gura ieuken ona egin eziñik. Barrua onera buttzaka dauka, ta berari iagundu bear dautsenak, on ori ukatzen ba'dautse, nai daia alperkeriz, nai dala ez-bearrez, ugaritasun aundiz gizadia ezin otseindu leike. Kezkea dabii or, iandarearen barruan. On egin eziñaren pena ori sentikorra da, berezko eskabide ori egizkoa da-ta. Landarea jakituriz ta maitasunez baiño gogorrago, bere izatez otska dabil laguntzaren billa.

Bizitzeak berak eta jazokunak be deadar dagie. Gure bizi guztiaren zera or dago. Jazokunak iakituriz ta mañasunez, ondo, argitzen ba'dira, biziak aurrera egingo dau, gizartean giro ederra egongo da. Baiña arazoen gora-beretan laguntzaren ordez etsaiak sortzen ba'dira, nork aztertu bizitzaren ankerkeria... Gizonaren bizi ta arazoak, beti, dei egin eben ta egingo gure bizitzea konpontzeko.

Nork landu ta zuzendu bear dau gizadia? Nork argitu bcar dau gizadia? Gizonak artu eban onen erantzuera la erantzupena. Jakituridun guztiak gizadiaren zuzenbidean lagunkide izan bear dabe. Lagun guztiak artu eben biziaren eskubidea ta askatasuna. Entzungor egin ta or konpon esanaz, nasai ibilteko, ez zitun artu bizi ederra ta atmen orrek.

Lagun biziak jakituria ta maitasuna dareazanezkero, bizia bere Sustraian zapaldu ta itko leuke, almen orrei erantzun ezik. Argia biztu ta maitasuna zuzpertu egin bear dau lagunagan, eginbearrez ta erantzupenez. Izadiak eta gizadiak, eurenez, on-arren, ori eskatzen dautse lagun bakotxari. Beraz ez da norbere gurariz bertan iztekoa.

Geugan daukagu argi egiteko crreztasuna adimenareu bidez. Almen onek bere cgikizuna bete ez ba'dagi, alper eta bizi iltzaille izango da. Gizadiari argi egin bear dautso, gizarteak dituan ardura la egikizun guztietan. Adimenak

bere -'ritxia ezin ixildu leike, bere egikizuna argi egitea da-nt. Sendiari irakatsi ta erriak argitu ta zuzendu bear ditu, bakotxak attu dituan argien erara.

7'a iñork batak hestcari ukatu ete leikio, norberc ar-gihideen erara ta zuzentasunez argi egitea?

Almcnak eta cginhcarrak ez datoz lagun-iruren nai laurcn *izatectatik* eta naikerictatik. Bizitzaren ardurea egi-kizun garrantzitsua da ta ezin leiteke edozein eratara artu ta erahili. Gizadiak eta gizarteko arazoak eskatzen dausku giza-:^cru hakoiilari noncere ab-tienen eran emon ginai-kien laguntasuna. Gizadia otseindu bearra ha, hcrcz da-gekitu, ta gure jakituri, naimen ta indarren eran egingo dogu.

^Onck darakuskunez. iñungo gizonek ez dauka c kn-hidrrik erritar baten berezko, eskubideak kentzeko. Ta au clan dalarik. «gizon batek bildur-arren critxirik ez dot nai ematerik catca» esan exindako keldarkcria da ta norberc ecinhearra ta erantzupena zapaltzca.

Euriak lurra emarotu eban lora sasoian ta lorak biziki, eder, apaindu eben izadia ta itxaropenez betetu etorkizunaren eguna. Ale eder betiak agiri ziran zugatz adarretan. Izadia ixilik, irri Parrez, egizko maitasun itzetan dabil.

Euria ta argia alkartu dira tarteka, ezotasun ta beroagaz lurra ta gizadia indartuten. urrea balio dabe biok alkartuta.

Argira doaz lagunak, abereak ta landarak. Ze eskutuzko indar dozu eguzki dizdiratsua? Zuk ez dozu sortu zeugan dozun jakiturizko maitasuna. Itsuan zabiltzaz artuak zabaltzen. Ta izadi osoa begira dago zure maitasun beroaren zain.

Zure berotasunpean erbiztu zan lurra. Azia eme, landarak berdetu, tantaiak sendotu. Ona dariozu. Ta lagunentzat bizi indarra eskeinka zagoz.

Zure s,u indarragaz, euriagaz nastean, alerik gozoenak eldu ziran. Osasuna, sarri, zure antziz ebillan. Ta inderkatuta aurkitu zanean, zure dizdiren edertasunez sendotu zan. Argia on egiten, egizko maitasunez mintzatu zan.

Geroago laiño guztiak estaldu ziran. Ille bian ortziak ez eban laiñorik ezagutu ta eguzkiak arkaitzak goritu zituan. Sua erion lurrak, lengo bedar gizenak beroagaz kiskalduta. Latzinak ur bage, abereak egarriz itoten. Zer jazo bear dau lurrean beroaren indarrez?

Zelaiak bero galdatan, gorri, agiri dira bizi-itxaropen bage. Basauntzak, gaur urik ez dauken, lengo iturrietarantz doaz, intziriz, baiña alperrik. Inguru guztiak erreta ta geroago ta barrurago sartzen jake liorraren minberatasuna. Aragi guztia kiskaltzen ari da.

Lugiña negarrez dago aldapa egalean. Negar biotzak, negar begiak, aurrean guztia galduta ikusten dau-ta. Bakardadea dakus inguru guztian. Zergak ba'ditu, beti, zintzo ordainduak, ta zoritxarpe orretan aurkitukeran, bertan bera bere zorira itzi dabe.

Mundua tnintzatzen asi da.

## IZADIAREN MIN'1'ZAIR:A

Lurra, berez, a:,i da izketan. Aidean daga. Iñork eusten dautsonik ez dugu ikusten. Gauza astunak ostera jausten dIra la zenbat eta asi unageak izan, za ratat su apa ta indartsuago dauz berantz. Gizon lodi ta baldra.ak zanpada a undiagoa artzen dabe. 1adiaren legea da uri. Ondoen berak daki.

Guk ezagutzen degun urik ludiena, tripeisuena lurra da, ta iñoz ez da jausten, ezta arduragabekcriagaitik be. Beti dago lege baten barruan.

I_egelaria nor ete da? Indartsua La jakituna aurki. Askorentzat legera-i ori lucraren bere berezko igilari bat da; beste askorcnleal turra sOrtu la eutsI da ra cI Ql sana, ezta indar itsua la berezko ibillera batetik sortua, lur onek Jabea dau gizon jakituria baiño argi geiagokoa.

Gizonak orain artean lurraren legeak ikasi baiño beterik ez dau egiten. Takituriz ta maitasunez hIrra askoz geiago izanik, lur biribil unen izatea ta legedia arri tuta ikusi ta berari begira tu besterik ez dau egiten.

Emen, lagunen jakituriz bakarrik begiratzen jarten ha' gura, lurra berezko zerbait lez artuko dogu, baiña adimen la maitasunik ez daben lur etzak, ainbeste jakituri darian

izaki bateri, bizitzarik ezin emon izan dautso. Lurraren izatea mintzatzen asi da, beragandik at, aparte daukan Egillea adierazotcn damosku.

Ain maitagarria dan lur onetan, gauza arrigarriak dakusguz. Aitz gailien izugarriak, mendi [a zelai ederrak ta curen barruan gorderiko ondasunak. Guzti onek esanalak esaten dabiltzaz ta gizadiari un agiten. Baste legerik ez dabe gizonari on egitea baiña.

Itsaso zabalak zer diñue or ;oietan, bati, bilian, jarraian ta iñoz jausi barik? Arrainez beterik gizadia bizi dedin. Ona zabaltzen cizonari legerik jaterrenean . . Aa da ongillearen mintzaira. Ta lagunak, cr, dcaz bizia darion itxaso amagana.

Errai zabalak ditu arrain mota askogaz ornituturik. Gatza hear biziak ta gatza Barea urak arrai = bizigarritzat. Or cica iakitariaren !eeaa. Itsasoaren bidez orrei bizia dametsenak itz egiten dau.

On guztia maiTasuna da. Ura, lurra, arria, lur erraietan dagozen arre, zidar, burdin, arrolioa una eskeinke dagoz. Erarik bizicnean maitasuna darie. Isilik baiña egiz, curen izatea opaltzen dabe gizonaren bizi-bidcrako. Orrck ez dabe ez arrokeririk, ez lotsagabekcririk.

Izaren izate guztia otseintzarako arta eben eta iñoz *ez* dabe czezkorik ez aitzakiz ta ez gogorkeriz agertu. Euren mintzaira garbia da, gizonari laguntzea.

Ta ostera, ondasun orren eginbearra ez da betetu. Zuzengabekeria da. Baiña curen errua ez da. Gizon jakituriak, txarto, darabiz, norberekeri baltz baten otscintzarako. Burua ba'leuke, gogorki, jarriko lizakez aurka, garra - ;:ika dardaratuko leuke gizon gaizto ta lapurra.

Ori ezin dabe cgin. baiña isillean esango dabe, gu sortu ginduzenak, guztientzako sortu ginduzan. Lagun bakcitza da, berak hear gadcan gran, gaur eskubidedun. Ta ori ceden ez dan bitartean, izadiko ondasunak ez dira ixiiduko, garrazida, eizadiari dagokion on-bidean.

Egille bat dogu ta gure elburua ez da besterik otseintzca baiño. Loikcririk ez dogu nai, nai-ta gugaz baliaturik, jauntxokcriak bear gaiztoak ba'dagiz be.

## NORBERA IZKETAN

Oraingo onetan gizona lurraren, aurrez aurre, ikusten aleginduko naz. Izadi eder bat begi aurrean dogu. Lurrak, aizeak, argiak, itxasoak, bakoitzak dauka bere bizi ta altxorra. Gauza guzti onek norentzako dira? Zer guzti unen Egilleak bizi-bizi ta maitekiro esan eban: Guzti onek zuentzako dira ta zuek ostera nirctzako.

Gizonak beste alde batetik barriz, iñork ezer esan bearrik ez dauka. Berak barruan ezarrita daukan bizi-legetik argi konturatzen da. Inguruan doguzan izaki guztiak, curen izt,tez gizadiaren bear izanak asetutcko egokiak dira. Ortik garbi agertzen da ha, batzuen zeregiña ta besteen aregazko cskubíde bizigarria.

Emen, iñork el dau ezer sortzen. Giz-adimena billaka dabil. Ta iñoizko billakuntza arrigarrienak daroaz aurrera. Izadian dagozan indar, jakituri ta ondasun guztiak diez; ez ditu agortu al izango. Gizonaren egitekoa ta eginbearra da billakuntza onetan saiatzca.

Bearrak eta alegintzcak adimena argitu egingo daba. Indar barriak izango ditu gizonak beregan. Geroago ta gertuago izango dau bere burua Norbcrarcntzat aunditasun bat izango da. la era or'etan aurreratzen joan bear

dau. Ori da almenen berezko egarria. Barruko eskubide ori aurrera eroan eta osotuten ez dan bitartean, gizonaren egingoa be ez da betetuten lurrean.

Argi egiteko etorri da gizon guztia lurrera. Orretarako gertatuko dira lagunak, norbere almenci dagokien eran. Or jorratu bear da, gizontasuna ta jakituria izan dedin gizonen barruetan. Eurotariko bat cz dagon tokian, gizon erdi baiño ez dago ta gizon erdiagaz iñora ez goaz.

Izadiaren aldetik nun atxurtu ba-dogu. Esan ezin beste altxor dago ezagutu bagarik lurrean, itxasoan, aidean. Ta izadia bere aldetik dan guztia eskeinka dago gizadiari. Bere burua ez dau estalduten. Bizi billa beregana doakoanari, burdiña, urrea, urani, arrolio ta ondasun bideak, zabal zabal, agurtzen dautsoz.

Zertatik dator orduan gizadia ain be egotea ta onen ondoren datozen zoritxar ta goseak izatea? Azeria ez da gizona, baiña gizonak azeriaren griñekaz diardu lurrean. Lurra maite dan, sarri, larregian, ta onen ondasunak, kili kili, egiten dautse. Guztien onerako begiratu bearrean, norberaren ona, bakarrik, maite dau. Lukurrcri baltz onek gizontasuna deuseztu egin dau gizaldien gizaldietan.

Gero, poza asmetan dautso ainbesteko ugaritasunari. Bizitzako aukera ta erreztasun orrek irri-parre eragiten dautso, nai-ta inguruan amaika milla jausita be gose ta kurutza artean. Aoz beste zerbait esateak ez dau balio, curen jainkoa, ondo eta zabal, egotea ta silbor betea da.

Beste alde batetik ba-dira gizadi minduagaz errukior direla diñuenak. Itzez eta egitcz bearrean dabiltzaz beartsuen aldezko garrazitan. Gauza ona opa dabe. Munduko beartsuei eskua emotea ta arekaz arduratzea gizontasunezko egite txalogarria da.

Baiña onetarikoak be lurra bakarrik eskeintzen dautse, sarri, gizadiari. Lurreko poza ta nasaikeria naiko direla uste dabe. Ta ostera era bitzuotako lagunak etsaigo aundi baten dagoz alkarren artean. Biok lurra maitatzen ta ezin dira alkar aitu. Batak norberarentzat utsean maite dau. Lurreko ondasun legearen aurka doa. Besteak be lurra *maite* dau bakarrik, goragoko ezer barik, ta lurraren ona opa dautse besteei be.

# GIZONAK ITZ DAGI

Gizartean gizonak itz dagi. Berezko doaia da gizonarentzat itz egin al izatea ta berezkoa da baita be, itz egin bearra. Gizona ezin da ixilik egon. Ixildu bearra ta bizitzearen amaia bat izango litzatekez. Jakituriz jardutea gizonarentzat goragarri ta onurakor da. Jakituria aurretik ibili ezik, erriak ez dau mesede aundirik artuko gizonagandik.

Lagun guztia batzarrari un egiteko jaioa da. Bakoitzak izango ditu bere bideak. Lurrari un dagionaren bizitzeak lur onetan, larregikcriz, beste caer ikusi barik, pot egingo dau. Zer guztia bera dala uste daben gizonarentzat, au samintasun bat litzake. Baiña bakoitza dabil bere pentsabideagaz. Adimen ederraren argiagaz lurra ikusten dau scil-soiltik, eder.

Bizia, ortxe, asmetan dabe gizonaren eggarri guztia asetuteko aiñakoa. Ta ortik at, lagunak ez dauka iñora ezeren billa joan bc urrik Lurra, aizea ta urak menperatzen ba doa gizonaren adirnena. Orrek goituaz batean. bere burua izadiaren jaun legez ikusten dau. Poztu egiten da.

Gauza onek berak egiten dituala ikusirik, bere adimenaren garaitasuna, geroago ta indartsuago, asmetan dau. Gogai izugarrizkoak datorkioz bereala. Gizona lakorik ez dago. Izadia laster menperatu bear dogu. Ementxe, aurrerapiden bidez zoriontasuna aurkitu ta zorion leku biurtu bear dogu.

Bide orretatik lanean zailduta, gizonaren jakituria zabaldo ta sakondu egiten da; norbere almenak be, obeto, ezagutzen doa. Guztia doa gizona geroago ta gorago jasotera ta laguna gizaundi biurtzen dau ta izadiaren errege, sortzetik dan legez.

Izadi menneratze onek gizonari dan baiño geiago dala, sinistu eragiten dautso. Ta giz,-unak orduan bere elburua lur utsean jarten d nu. Ederra d eritxo. Beste iñork eginda emon ez dautsezan aurrerapiderako bizi bideak aurkitu ta gizadiaren bizigarritzat eratukcran, bere burua gizen ilkor baiño geiagotzat jarten dau.

Era onetan lurra ta gizona dira guztia beretzat. Buru almen ta biot:'.a, len, ezagutzen zituan la orain, aurkitzen dituan jakituri ta indar barrietan asaskat utcn ditu. Baiña gizona oso, ncgurtua dalako *bere* almen goi-beetan, lur otzagaz naikotuta geratzen da. Elsipen ariña, baiña gizonaren barru-eskabideak, osoro, askori betetu dautsezr

Ortik dator lurra jakituriz ta gizona indarrez menperatzen dabena jainkotzat artzea. Gaur eguneko mito izugarria. Jainkorik ez nai, Jainko barik ezin egon ta gizona jainkotzat artzera doaz, ta azkenez, burua makurturik, lurra besterik ez dabe ikusten.

Baiña lurra ona da ta aberatsa. Beronek dituan ondasun guztiak gizadiari eskeintzen dautsoz. Atan bere, beti, ixilik, esaneko ta menpeko_ Ori dala-ta, lurra atsegin da ta gizakumea, oso csoan. beregana doa. Lege, jakituri ta ondasun barriak aurkitzen ditu gizonak, eten bage, lurrean.

Askorentzat au atsegin baratz biurtu da. Ta euren kidekoei auxe eskeintzen dautse Besterik ez dago diñue. Ikutzen dabena ıa ikusten dabena. Gagarin, lenengoz, lurretik gorantz joan zan gizonak be «Jaungoikorik ez ebala ikusi an goi aldetan» esan eban. Pozik egoan nozki, lurreko nagusi gizana ?ala-T.2I.

Alderdi guztietatik berantza ekarri gura da gizona, alperriko ametsetan ibili barik. Lurra cdertu, miiñezko alkarrasun bat osotu, ementxe, aundikeria ta ezer-eza, on-

dasunak eta landerreria, batzuen zariana ta askoren zoritxarra, aren egurrezko agintza ta beste geienen menpekotasun ikaratia dagon gizadi onetan.

Jainko bezela, gaur, goratzen ditunak, biar erriaren etsai ta zaltzaille gisara iiten ditue. Naste ta inguru orretan dagon larra ta gizartea gizunaren atseden toki egin nai dabe.

Gizadiari lurra eskeintzen dautse. Ta lur onek sasiak, arantzat ta nekeak ditu nunnai. Ta kurutzarik gogorrena gizona bera, bere norberekeriz, nausikeri, arrokeri ta ;alperkeri ustelagaz.

Au al da gizu,nak gizonari eskeintzeko daukan on guztia? Ez, gizonak bere lagunei gauz onak eskeintzen dautsez; aurrerapidea, poza, zorion bat emen lurrean. Bair".a millak urteak ta tagunen jokabide maltzur ta gaiztoak beste zerik agertzen dau. Errien ona ta aurrerapidea eskeinke batetik, ta jaunrzarkeria ta illea bestetik, sarri, ezagutu ditu gizadiak.

# GIZONAK MINTZATZEN

Ona, berez, doa zabaltzen. Izaki guztiak ditu lagun. Goia eta bea, itxasoa ta arkaitzak, lurra, abereak, lagunak, guztiak dira onaren zale. Arriak, lurrak eta urak arrizko, lurrezko ta urczko dítue biotzak.

Arrizko etxeak maitasunez, zaintzen ditut sendiak. Gizenak, jakituriz, etxe bat sortukertn, onek maitasunez artzen ditu lagunak bere barruan. Eguzki galdak, euriak, aizeak, txingor ta edurrak bere gain daroaz lagun arci, beti, un egite-arren.

Urtien joan-ctorrian, aldicn gora-beretan, jazoera aZtiak eta naigabetsuak ikusi ditu. Gizonen jokabide zuzenak eta rnaltzurrak, zuriak eta haltzak, kondeak barruan eta txiroak ate ondotik zear narras igaroten.

jauregi apaintsuak, aundikiro, itz egiten dabe. Aupaka dagozela dirudie. Gizartea berez, batcrikoa izanik, gizonen jokabidez banatua izan da. Aundikeriz mintzatzen da gizona. Gizadiarcn burictzarrez. norberckcriarcn indarre? diardu gizonak.

Nausikeriak iñoren samiñik ez dau ikusten; zauriak barriz, alka rtasunik ez dau sortzen. Zauriak osasuna t^ gaisoa adicrazoten dauskuz. Bizi garbi bat egon tokian mina sorto da.

Beraz biziaren cgíak gaitz bat dala dino ori. Ta giz:anak, arrokeriz, geiegizko atseginak norbcrc buruari ematearren egin ezkero, gaiztakeria ren ezaugarria, argi-ar=i, daroa. Gizonak gosez, ilten ba'dira, eriotza orrek gciegiako diru ixuritcari deika dagoz asarrez beterik.

Deia ez da edozelakoa. Biziaren deia da garrazirik sal:onena ta bizitz asko urratu ta amaitu dira aundikeriaren edcrkcriz baiña jokera mizkinez. Ta ezin ikusi. Ez nai ikusi. Norberekerizko maitakeriak, egiz, una duna artzen cz dautso izten.

Zer cte da edcrrago, jauregi ospetsu banatuak, or emen, alkarren on-damuz ala erri maitetsuak, batak besteari lagunduz, alkartasun giro samurrean bizi izatea? Bizia maitasuna da. Maitasun bizia zabaltzea da egitekorik garaiena.

Aundikeriak biziaren edertasun guztiak ncrberarcntzat nai ditu bakarrik. Batzuen jokabide orren bidez, beste askoren bizia urritu egiten da, ta sarri, oso murriztu iberagiño artean.

Emen bizi gara. Egia ezagutu ezinik, Egia da biziaren oinarria ta ori gure biziaren ardaztzat artzen ez dogun bitartean, guzurrez bizi gara. Guzurrak ostera ez dau bakerik. Bcrenez guzurrari nastea dagokio. Zurikeria dario.

Jakituria, indarra, ondasunak curen tokitik ateraten doguzenean, ostikoka dabiltzaz min emoten. Gizonak gizartean darabizan iru akulu gogorrenetarikoak dira, izan bere, aitatu doguzan tresna onek.

Onei gizartean eurenez dagokien bearra, argitzea da. Auxe da ziur, maitasunaren bearra. Baiña ori bestera aldatukeran lagunen jokabidean, odei, trumoi ta gorroto biurtzen dira orduan. Ori dala-ta, gaurko gizartea izketa bereziz mintzatzen asi da.

Onak zapaldua izan danean, egi ta zuzentasunaren lege eskatzen dau. Iñoz ez da ixilduko. Ixiltzea guzurtcide biurtzca litzake. Onak, beti, on egiten jardun bear dau.

# GIZARTEA MINTZATZEN

Jakituria gizonen eskubidea da. Adimen almena bere sorkeraz, indarrez ta en egin bearrez, jakintza-eziera bina dabil. Eske zorrotz au ez da edozelakoa. Ezta naikerizkoa he. Gizonaren gogotik at dauka bere sustraia.

Almen bat bere izatean osotua izan bear dau. Osotze ori lortzen dabenean, *zerbait* egin legike. Orduan gertu dago egin-bear bat betetuteko. Ezer ez dago berari zor jakon errazoi biderik bage. Artu ta emon berezko legea da. Bizia ez baita egona, egitea baiño.

Adimenaren jakituri lantze au berezkoa danez, gizadibu jaunkcriak beretzat bakarrik, ezin artu legike. Jokabide ori lapurreta litzake jaunkeriaren lapurkeriz, naiz bear ori egiteko irakasteko arduradunen maltzurkeriz.

Jakituria cskatukeran, gizartea mintzatzen asi da. Mintzaira ori jakituriaren legea da, ta iñoz ez dau ixildu hear. Gizonak gizona morrontzapean euki legikela ta euki bear dabela, nork esan dau?

Berezko jakituria dan Aren erara sortua da giza-laguna. iFa argi orrek argira dei dagitso. Buruak azkatzcrt ta biotzak zuzpertzera.

Ez-jakiñaren zorigaitzak ondoren samiñak ditu. Urkoa ez-jakiñean euki nai dabenak, asmo garbirik ez dau. Indarkeriak lotsarik ez dau ezagurzen. Ustarpea ta joputza bere naikerici eusteko tresna.

Ugerrezko katei baltz baten, biribil-biribil, alkartuta dagoz dirukeria, maltzurkeria ta unen seme morrontza ta joputza ustarpe lotsagarri beartuan. Era bateko laaunetan guzurrezko alde mingarri orrek sortu ditu.

Ainbeste milla urte ta gizadiaren aurrerapideak, geldi-geldi, egon dira. Zerk euki dau lotuta biziaren ibil-bidea? Izendau eziñiko era=,ozkeri bat ba-zan, jakituria giltzapean eukana.

Argiak izatez, bere dirdirak zabaidu bear ditu mendira, oianera, zelaira, itxasora, ezer dagon toki guztira. Guztiok gai dira argiaren indarra artzeko. Ta argiaren bider egal guztiak bizitu, edertu ta poztu egiten dira. Au iñork ez dau ukatzen izadiaren alde ta gizadiaren osasun ta biziaren aider

Gure biziaren zuzendaria adimen argia izanik, gure izateak eskatzen dau guztien buruak argitzea. Bizia gaidu egingo litzake, argitzeagaz arduratu ezik.

Bizian zabaltzeko eskubidea dau zabalez ta sakonez giza-sail ta bero inguruari dagokionez. Gure gizartearen eskubideak, eskabide indarrez, deika dabiltzaz.

Eskubide ta eginbear onek etsaiak izan ditu. Etsaigoa izan bere, norberekeriaren aldakesten traketsa, sarri, da. Gizonkeriak gizontasun itxurak artuta, inguruak atzipetuten, gogorki, jokatu dau.

Azerikeri orrek deuseztu egin bear dira. Norberekeriak iñundik iñora argirik ez dau nai. Argiak egitadak agertzen ditu ta baita be egikeren txarkeria, nauskerien ugerra ta jokabideen maltzurkeri ezaina.

Norberekeriaren on-damu petrala agertu ezkero, gizonaren gizonkeriak zauritu egingo dira. Ori dala-ta, besteak argirik izaterik ez dau gogoko. Ta argirik izan ez dagien, gogor, jokatu dau era guztietara. Ori da laguna baztcrtutea. Baiña berezko legeak guzurtatuten ditu jokabide orrek ta bakoitzarentzat zor jakon eskubidea agertu.

## EGITEAK MINTZATZEN DABE

Gizartean gizonak itz egiten dau. Baiña, beti, ez bardin. Iiz-bardintasunak, berez berez, sortzen dira. Gizonaren izatetik ta jokabidetik datoz. Gizona egi alta ba'litz gizadian bardintasun bat izango litzake, egia bera, berez, dan gisara. Giza kasketaldiak ez litzakez ain ugari izango la esta nasteak eta guzurrak dakarren saminik be.

Egiaren billa ibilteko sortua da gizona, baiña bere barru-aldi arinkcrizkoak, arat-onat, darabil egitik guzurrera txoriburu antzera Aldakuntza onen sorburua norhercgan izan oi da. 1agunaren izate kili-kolozkoak, pentsabide arinkcrizkoak, iñungo ganora bage ibilkertn, zentzutasun zenvundunari zorabiatu eragingo leuskio.

Ond emen, gizona zcntzugabekeriz mintzatzen ari da. "Ia arinkeri cnek dirala-ta, gizadiaren sustraia kulunkan dabil nora ezean.

Bada-ezI udako ezpai onek bildurgarrizko sort-iturria, sarri, izan daroe. Gizonak gizontasuna baztertu daroanean, *ez* dago bururik ta oinik la onek bereala ditu ondoren n,Oriburuzkoak.

jokabide oneI: bere oinarria gizonaren griñetan dabenean, b.aeren-batzuk edo askok, samiñez, negar egin bearko dabe.

Lagun gizajoren bat nai dala arinkeriz, nai dala goiz--takeriz bide orrek artzen asten danean, lenengo negarra k iñori eragingo dautsaz. Aren egiteak zorakerizkoak edo gaizutkerizkoak izan daitekez. Nai baterioak izan, nai besterikaak izan, iñola be, ezin daitekez onartuak izan.

Zerakeri edo gaiztakeri onek ondore samiñczkoak dakars beste batzuentzat. Ta iñoren erruzkoak diranean,

egiz, dira minbereak, baiña gizajoak direnak eta zori hagekoak, laster, agertuko dira agirian. Onentzat zuzentasunak, denporaz, agertuko dau bere zigorra.

Orduan izango dira minak eta aienak, baiña alperrik. Ibaitik itxasora joan ziran urak batzea, czina da ta gizajoak bere jokabide zentzun bagea dala-ta, ^,katzen jakon aria emonda, ordaindu bear.

Onen aurrez-aur, beste jazoera batzuk be ba'dira. Danak galduta dabiltzanak, ez diru. Pentsabide ta jokabide, ondo, alkarri josiak dira. Indar aundia dauke ta gizartean zarrak diranez, gogoz, diardue curen erara mintzatzen.

Ondasunak pillatzeko egarri negargarria dago. Gaizt au oso zarra da. Ori dala-ta, antxiñatik aberatsak eta txiroak agertzen dita gizonen edestian. Edesti samiña. Baiña olantxe mintzatzen dira asko ta asko.

Zoritxarrez lagun larregiren jokabide onek beste ezin esan beste negarpean darabiltz. Giza-maltzurkeriaren egikerak dira. Ortik sortuko da ezta-baida aundi bat gizarteko bakea apurtuko dauana.

Iñor ez da berez, ez nagusi ta ez txiki. Guzuak narro gorrian datoz ta era bardiñean dira eskubidedun la e ginheardun. Gizarte zatika gizadi oso bat sortuko daho Guztien elburua, izatez, bat berbera da. Berezko legeak ta gizonari zor jakozenak apurturik, zuzcngabekeriz mintzatzen dira asko gizadian.

Lurrean diran ondasunak euren izkuntza dabe, gizonari bizi izaten laguntzea. Au egikizun egokia da. Edozeiñen eskabide ta eskubideak, ondo, bctetuteko crakoa. Baiña gizonak beste egarri nabarmcr batzuk ditu lurrean. Nausikeria, ospea, askoregaz jaubetzen dira. Zuurkeriak, xctilki, bear egiten dau goi eta ertz arduratsuak bereganatzen. Dirukeria orobat bizia menperatu nairik dabil askoren ezbear ta txirotasunerako.

# ONAREN DEIA

Ona egin aurrean ta una egin ostean garrazika dabil. Laguna, beti, onaren egarriz dabii. Deadar onek gizonaren almen guztiak goituten ditu. Era guztietako lagunak, berez., gauza bat nai dabe, bakarrik; ona. Onak izan bere, txundituta izten ditu, burua argituta ta biotza asetuta.

Garaiz, jakituria artzen alegindu zan gizonak, gizon barriak aterako ditu ikastolako orduetan. Argi bidez ta eziketaz diardu lanean. Lanketa gorenengoa burudun izakiak gertatutea. Gizartearen ona jakituri ta ezi-bide onetatik etorri bear dau.

Iñoren buru la biotza argi ta maitasunez landu dituan gizonak, onik aski egiten diardu ondorengoen bitartez. Jakituri zuzenak eta cziketa bidezkoak azken gabeko urre katci gisara doaz on dirdaiak zabaltzen.

Gizon osoaren eziketa baliotsu au mintza ta mintza dabil argiz, lai^oak usatzen, gizadian bizitza barri bat egizkoa izan dedin.

Jakituriaren egiteak itz dagie, baiña era bardincan ez beti. Baserritar zintzoak udabarrian asi ta negurarte bere jakituri, osasun ta almenen *erara* lanean diardu. Nekeak neke, iñoz, ez da gelditzen. Iñoren laguntasunik ez dau izango. Bere aleginen erara jardungo dau orduen erruki barik.

Bere lanaren ondorenak era saminean itz egingo dabe. Izerdia ta nekea goizetik gabera cien baga. Sarritan, ondoren on asko barik. Baten baiño geiagotan euria curiaren gain etorriko da ta ereindako azi eme-barriak bere begiekaz ikusiko ditu ainbeste oraren garraztasunez erre ta ezereztuten.

Baiña ori dala-ta, arekaz iñor ez da errukituko ta urteroko sasoaia eldukeran, etxeari ezarritako zergak ordaindu bearko ditu. Baserritarra ba-dabil bere jakituri ta indar guztiekaz bearrean ta bear saririk, sarritan, ez dau ikusten. Ta nekeak ostera edonundik datorkioz, bai lurretik, bai eguzkitik, bai edoietatik ta baita lagunen aldetik.

Jazoera onek, biziki, mintzatzen dira curen barrurako sarninez.

# EGARKIZ BERBFTAN

Gizonaren izateak utsik ez dau emoten. Berezko <gun oinarriak, oso osoan, egizkoak dira aurki. Egillea ala-koscak. Bizitzaren zuzendaritzat argia la maitasuna jarri euskuzan. Onen bion alkart a sunetik zuzentasunaren deia datorkig u.

Olako oinarri jatorrak izanik, gizonak berez, bere muin barrenean ainbeste zuzenba ge keri nundik eta zelan sortu leitekevan, ez da ulerterr,.za. Baiña eginak barruan daroe curen indar ukatu ezina. 'l'a olan ha gizut:en egite asko zikinagaz beilota dagoz.

Zikina ta argia alkarren euri dira, guzurra ta egia iku-si ezinak diran bezela. Orra ha gizonaren uts eta zikinak gizonarcntzat naskagarri biurtu dira. 'ha zer esan bata-ren ncaltzurkerizko zikinak *b,:suarco!Cut* dira-nean?

Ortik sortzen dira sarritan, burruka esan ezinez.koak. Burruka ori sortzen ez ba'da, <gure errukarria! Edo guz-tiok al dogun giñuan, besteen ondatzaille egin gara ed:. batzuen u_arkeria dala-ta, beste arku ta asko beTirako on dira. Jokabielc biok gaiztoak dira.

Era orretan jokatu ezkero, gizartearen ondar endira guau. Argiak garrazi egin bear dau gizadia undatu baiñ a len. Nai ta naiezkoa da. Ori ez ba-dagigu, geure barre-neko izatearen aurka g oaz Guzurra egia baiño naiago do-go, ordikeria garbitasuna baiño, lapurkeria uintzota.sun.t baiño, askoren gose ta eri:nzea be e batzuen aundikeri ta arrokeria hamo.

Bide orretatik nora *ce* g oaz... Ori gizontasuna saltzea da, norbere izateari saldukeri egitea, hi:ia zagaitzea Jaka-bide urren bitartez zer lortuko leude in<<arkeridunak?

Galdera onek, egiz, il edo bizikoak dira, Ta biurrikeri onekaz bizia iosita dago. Gizona bere senetik urtenda dabil, sarri, ta lotsea galdu ezkero, adinak ez daki biderik zuzentzen. Ortik ondoren, berez, datoz kezkak.

Gizona orduan zuzen billa doa zuzenbideari lotsarik ez jaken tokira. Gizonak gizona, sarri, berezko iakozan eskubidetan zapaltzen dau. Azpiratzailleak au egikeran, bi baztertu ta iraintzcn ditu, gizona ta bizitzarako onek bear dituan eskubideak damotsezan gizonaren Egillea. Egilleak gizonengan bera zapaltzea, iñoz, ez dau ontzat artzen. Ta garrazika diardu, berak emeniko eskubideak zapaltzea, zillegi ez dala esanaz. Zentzunari deika dabil, baiña bizitzako oinarrian urko tagunari, nai sendiari, nai erriari bizia kentzen dabillena, gortuta dago ta gizontasuna gatdula dabit.

Aundia, jakituna, indartsua ba'da bear orretan, bake jende zeiaren bildur gitxiago erabiliko dau, baiña egilleagandik entzuten daben otsak, zartada gogorragoa emongo dautso, iñoz ez dautso itziko bakean. Ar baten gisara arraztaka ibiliko jako barne-muiñean. Gizonak gizona za pattzen dabenean, olantxe da Egillearen gaitzespena. Zuzena danez, zuzengabekeri orrek ontzat ezin ditu artu.

Gizonak be zuzengabekeriaren aurrean ots egiten dau ta egin bear dau. Ixitduko ba'litz, bere gizontasunari uko egingo leuskio. Au ez da egizko gizontasunari dagokion jokabidea. Berezko tege bat austen dan tokian ta baita beste edozein zuzengabekeri dagon lekuan, garrazi egin bear dau lan tokian, gaisotegian, elizan, ikastoletan ta edozein bear ta bizi lekuetan

Iziltzca ez da zillegi. Maltzurkeri ezin esandako bateri laguntzea litsake.

LEGEDIAREN MINTZAIRA

Zentzugabekeria dirudi. Gizona bere almenez askatasunaren jaube da. Ta aske izate ori lege baten bidez kendu egiten jako. Lagunari min emotera ete doa, bizitzaren negurri ¡pinte ori? Cizona zapaltzera etc doa legediaren asmoa?

Gizona, egiz, sortzez da askatasun zale. Doai au lagunari ukatzekotan, bere izatea be ukatu egin bear jako. Gurari ori norberak egina ez da-ta, lapurretarik aundienetakoa da gizonari berori kentzea. Askatasun bage gizona ezin da bizi, ez da bizi. Ori dala-ta, lagun nai erri baten bizia askatasun giroan jarri bear da, ta ain zuzen bere legeen bidez.

Zuk ta nai zure erriak ta nik ta nai nire erriak, hakoitzak norbere bizitza ta eskubideak ditugu. Bardin eginbearrak. Iñork iñori gaiztakeriz, ezin leikio orretan ikuturik egin. Legeak cr,kubide onei dongakeriz ala zuzenbidez erantzungo ete dautse._. Ortxe dago legearen uts eta ondapena, edota bestelan legearen ziurtasun eta indarra.

Lege onek etsai aundiak ditu gizartean. Lcgelariak errez jausi daitekez laido maltzur enetaricorcn baten. Arrokeria, norbereketi_t., goikeria, dirukeria, ots gogorrak dira. Gizarteko mamo baltz onen menpean jaustea ez da zailla, nai ta gizonentzat egokia izan ez. Penomeno, agerkari onetarikes, aski. dira gizartean. Guztiak gizartearen ongille direla oLzertu gura dabe agirian, baiña jokerak ez dira argiak, baltz ik baiño azal ederlseri baten itXuran.

Lgcak, millaka, ezin esan beste, giten dira gizadian. Euretarik asko batzuen onurara doaz. Ondorenak laster agertuko din unen edo aren aurrerapidetan. Etxeak, on-

dasunak, ibilkcrak, errietako jauntxo lez dabiitzaz. Onen eritxiz iegeak oso jatorrak ziran. Errian egoan ordena, ixiltasun, kezkarik eza, olaloen ustez, bake zoragarria zan.

Baiña zergaitik ete egoan ordena ixiltsu ori? Bake idurizko egoera orren sustraia aidetu ta agirian jarten; askorentzat onurakorrs, izango litzake. Baiña nun ete da azti baitz bildurgarria... Ardiak kukurtuta, bildurrez, dagoz. Legea ta orren ostean dagon ezpatea erri bat koldartutera ete doaz?

Batzuen aldezko iege kutunak goikeriz datoz. Inguru guztia menperatuteko asmoz. Asmo ori lortu ezkero, zuzentasun itxura arrigarrian, nasai dahiltzaz gizarteko gorengo mailletan. jainkoak ba'lira bezela curen jokerea utseziñezkotzat artzen dabe. Aurrerapide aundi ta onenak egin dituela deritxoe. Ta iñork egi itzagaz ta eginbearrez ikutu orduko, santu zarraren jantziz, bizkot, iaikiko dira, maisu zuzena baztertzen ta euren jokabide maltzurrak edertzen.

Maisu baten lekuan iroregatamabost eurek, beti, egin bear ebena, baten edo bitan, betetuten ba'dabe, curen asmoak aurrera eroango ditut. jaungoikoaren izena, sarri, aman erabili, norberari, ondo, datorkion erara ta aren izenean erriaren onerako emon bear diran legeak, norberaren diru ta nausii eriari ongarri jakozan eran ipini.

Gizadian g izonak era onetan diardu, sarri, izketan. Legea zentzunduna izan bear, erriak zentzundun ta onurakor izan daitezan. Dirukeria, nausikcria, arrokeria ta norberekeria ezkazak izan ditu beti. Orrek gizona zirikatzen daben bitartean, zapokeriz legeak itz egingo dau.

Argia ez da izango zuzendari, indarra baiño. Zuzcntasunik ez da ezagutuko ta ez maitasunik. Orren ordez zer egin bear etc dau egurrak gizartearen bizitzan?

# GIZONA... SINISMENDUNA

Gizona, gizontasuna ta gizon sinismenduna zer diran jakin Igarri itzela, beti, asmau dot neure barman. Eurotzaz zer pentsan ta esan, ez nekian. Burruka aundi bat nercan neugan ta illuntasun ortatik ezin urten neban.

Gizonen siniskera ta jokabideak, oso, ez-bardiñak ikusten nituan. Batzuk miiñez ta jokabidez, aundikieraz, batera joiezan, beste asko guztiz ez-bardin. Baiña *zer* di gizonaren gizontasuna ta gizonaren sinismendun izatea Ta bien bitartean, gizadia ondatzen egoan, norberekerizko zerbait, gogor, ebillan bearrean, arra zugatzari czarrit.t lez, gizonari ezarrita egoan lagunaren nortasuna la duintasuna apurtzen.

Gizona burudun pizti bar dogu. Lurreko zer guztietan errege, ori bai. Berak izan bere, emengo abere guztiak menperatzen ditu bere jakituriz la indarrez. I.eoiak eta katamotzak, esaterako, kaioletan dagoz, orroaka, gizonaren esanera. Gizonak gizon dala agertzen dau jakituri orregaz, abereak maitasunez ezten. Maitasun aundiak caen oi dira egon bere piztien alde lagun askoren artean.

Giza-semearen garaitasuna, emen, bear dan *lez* agertzen ete da? Au ez dakit zorionckoa ala zoritxarrekoa dan, baiña ba-dira lurraldeak ta aundiki sendiak norbere ume ordez txakurrckaz bizi direnak. Txakurrak ba-dau boro lillura noski, baiña gizona orretan gizontsua ete da? Bide orretatik dabillen bitartean gizonak abere mailla, ondo, zaintzen dabela dirudi. Abereak egiz, jokabide ori ontzat artuko dautse.

Lagun baten ezaugarri bereziak gizon danez argia, maitasuna ta askatasuna doguz. Guk aiñean beste ezerk ez daukaz almen bikain orrek. Ori dala-ta, notintasuna geurea dogu bakarrik. Ta emendik datorkigu, nortasuna, argi ta maitasunez, bizi bearra. Almen gorenengo onek dituan izakia, ondo esanda, gizona da.

Orain, gizonak gizartean bizi bear dan bere izakerari dagokionez. Bakarrik bizi izateko sortuak ez gara, geure bear izanak beste batzuen laguntasuna eskatzen dausku. Bakarreko bakardadean bakotxak ez genduke ezeer onik eta gauz aundirik egingo. jaio ta beste barik, berttan bera, itziko ba'giñukez, pizti uts maillatik ur geratuko giñake.

* * *

Geure almenak be berez-berez, alkartasuna eskatzen dauskue. Nai dala buru argia, nai dala biotz maitasuna, eurak, ondo, erabili bear direla otska dagoz. Buruak ikasi ta ikasi ckingo dautso ta gizonak gai barriak ezagutuko ditu. Argi ta ezaupide barriekaz osotu ta edertu egingo da lagunaren nortasuna. Bear oneri gelditzen, iñoz, ezin izango dautso itzi, buru almenaren argia urritu egingo litzake-ta. Laguna barriz, iñuzcntetuta biurturik geratuko lit zako.

Biotza burua legez landu bear da, alkarren lagunkide estuak dira gizonaren bizitzan eta gizarteko joan-etorri guztian. Maitasunaren indarra ertzik bagea da, Indar bizi onek negurri bat eskatzen dau, gizarte batek eskatzen daben itzaltasunagaz gizadia otseindu dagian.

Geure aurrean daukagu, orain, gizona gizonez, lanez, eginbearrez ta eskubidez inguratuta. Lagunen inguruan ta arazo artean agertu bearko dau bere nortasuna lan-za-

letasun ta zintzotasun bidez. Gizona etxeko senditik asten da bere duintasuna agertzen. Piru eskondua danez, elkartasun maitekor baten agertzen da bere emazteagaz.

Eskontzako bidea, argi, ikusi dau. Bizikera orren alkartasuna ta eginbearrak, beti, ez dira izango errczak. Poza, bearra ta atsekabea tarteka izango dira, baiña maitasunaren itza, gizonki, konturatuta emon eutsen batak besteari. Poza, berez., da maitekorra ta indartsua, lagun biren gogoak alkartzeko. Seriar danez, emen, agertzen da norbere griñak negurriz erabilten, nai ezbearrak datozenean, gogorkcriak alegiñez biguntzen. Maitasuna adikorra da ta ez dabil norbereganako larregikeriz. Ta Piruren biotzak bere urrenengo lagunari lagundu egin gura eutsan gizontasun leial baten bidez.

Piruk sinismena galdu egin eban, gizartean agertzen ziran gaiztakeriak ikusita. Baiña gizontasuna, iñoz, ez eban bertan bera itzi. Urkoari un egitea, berezko zor bat zan arentzat. Seme-alaben jaiokeran, aren maitasuna barriztu ta geitu egiteen zan bere emazte ta umeen alde. Bear geiago la ardura barriak ctorkiozan, baiña bere nortasuna azi egiten zan kikildu barik.

Semeen azteak eta ezikuntzak ardura bizia emoten eutsen. Seme argitsuak nai zituan gizonei argi egin ta lurreko ainbeste guzur agirian jartekor Señorito mengelkeririk semeai, iñoz, ez eutsen irakatsi. Bere odolekoak zirenak, gizonak atera nai zituan, bearra ta zuzentasuna lurrean zabaltzeko erakoak.

Gizartean jauntxokeri larregi ikusten eban ta gizonak zapalduta ikusteagaz, min artzen ebanr Beretzat guztiak. bardin, ziran la milla bidar bizia emoteko gertu egoan gizonen bizitza obetuta ikustearren. Batzuen nauskcriak eta

diru batze gcicgiak beste geienen zoritxarra ta eza ekarrezan. Nausikeria zala-ta, beartsuei iaramonik egin nai ezta, jende zeiarengandik urrintzen ikusten zituan, ta baita txiroak baztertuten. Ainbeste gogorkeriz giza-zentzuna mindu ta apurtu egiten jakon.

Arrokeritik etorren zentzugabekcri au gizadiaren aurka egoala, garbi-garbi, ikusten eban. Jokabide au gogorkeria zala be ba-ekian ta gizonak gizona ezin eikeala era orretan zigortu. Aren pentsakera au zan. Gizon iegez eukan ustea bidezkoa zan, baiña bere egiaren egarriak ta, beti, bizi izateko barruan asmetan eban gogoak, ' inismena baé rriztu eutson.

Gero, Epulon'en bizitzea ta eriotza, iñoz, ez zituan artuko. Irudiki ori Kristok zergaitik geure begien aurrean jarri ete euskun, jarraian, bere barruan erabillan. Gizarte-auziko diru gora-beraren auzi nagusia, ortxe, aurkitzen eban. Batzuen aberastutea, beste askoren gosezko iltea ta abar...

Irudiki illezker au, bertan bera, ezin iñola be itzi. Gizadiko bizia, an, or, emen, Epulonez inguratuta dago. Ori dala-ta, gaur be Kristoren antzera gizadia sa]bau naí dabenak, ezbear ta ezaren aurrean karrazi dagie. Piruk ajo edo errazoi bi daukaz gizon beartsuaren alde jokatzeko; gizonak gizona ezin dau zapaldu, gizonak gizonari lagundu egin bear dautso bizitza au obetuten, ta geroko bizitzan bakea izateko, emen, lenengo egin bear da zuzentasunezko bizitza, ^g izarteko samiñak kenduaz la gizon guztien bizitza goratuaz.

Egiaren sua dario bere barruan ta ez dau ostoporik aurkitzen bere su giarratsua ildu leikenik. Zapalduta nai ilten dagon gizona bizitzara ateratea ezer ta zeregiñik gi-

zontsucna da. Laguna azpiratzea gogorkeri ankerra danez, gizonari bere bizitzaren galzorian, berak dituan eskubideak zaintzeko eskua emotea, gizontasunik bikaiñena da.

I'iruk gizona betirako azkatu ta gaizkatu nai dau. Lurreko arrokeri ta nausikeriak min emoten dautse. Ainbesteko norberckeri zapaltzaillcari gorroto dautso. Biziaren sort-iturria guztientzat bat da, ta Sortzaille orren izcncan bizia guztientzat, bardin, *maite* dau. I'cn gizon *le*gez, bakarrik, gizarteari on egiten chillan, orain, orrez gaifl era, sinismen bidez osotu ta azkendu nai leuke bere bizitzako zeregiña beartsuari laguntzen.

O gi ez dagiana, arentzat gizona ez da. Ta ziñezle gi

cz gizon legez ta cz sinistcdun danez; Egiari, Bideari ta Biziari iarraituko dautse ta, ortxe, aurkituko dau indarra giza-norherckeria lotsatuteko.

Txarrak cz dau ciartcan izateko eskubiderik, ta arean gitxiago, gizona giz artcan zapaltzeko. Gizarteari bizia emoteko, norbera bizia epaltzcn dimana, ori da gizon goragarria, gizadiak aintzat artzen dabLna. I?pia or dago gizarteari betirako en egiten. Au da cskubideduna. Bizi izateko eskubidca daukanari, zapaldua danean, laguntzen dautsana; ta gaiztakeriak, oker bideak arta ez dagiezan edo artzen dituncan, zuzenta:.un hidcz grina txar orrek iñausten dautsozana.

## IBAITIK MENITIRA

Ibaia ta mendia leku bereziak dira. Nork cz dau maite ibaia ta ihai ondoa? Zergaitik ez? Ibai ertza eder daga eguzki bizitan. Urak garden, aizea garbi, zelaiak berez orlegi. Bakca asmetan zan alderdi guztietatik. Soinulariak zugatz pullman. soso, bidegarro ta urretxindor karta--kantari izadi ta gizadiaren pozez.

Bakardadea zan ta bakea egoan bertan. Goresgarri ta naigarri zan. Baiña antxina etxerik ez egoan. Angillak uretan ebilrzan nasaitasun guztiagaz ta erbiak belardi zarretan, patxarax, curen naikericran. Ezeren ta iñoren dur bage, izadiko abere la egaztia!: ihaíondoko nagusi ziran.

Eguzki galdatan hai eder zeru urdin-urdin azpian. Uretan islan zugatz adarrak aizearen zanbunpean. Ta enbor ¡arreen gibeletik orlen eta sarro, geratu barik, arar anal, erle gorriak. Izadi arek eztizkoa irudian.

Baiña usaintzekoak usaindu eben ezti ori. Ta guztiak dirudunak ziran. Geroago arrizko c.xcak itxaso ta ibai crrzeran nunnai agertu ziran. Zugatz inguruetan. belar aurrean, uraren ondoan, eguzki begitan. Lurreko doatsuak ziran guztiak. Udako girnak ur ertzeetan igaro ondoren. uda-goienean uri aundie ara poliki iges.

Beargiñak eta bcartsuak ez eben aldi artan tajo ortako aukera nonik. Udako jolasik ez eben. Kale illunetan ta etxe zarretan irabazten eben eguneroko ogia izerdiz, udako at' egiñetarako astirik ez euken. Batzuen aundikeri ta zora na beste askoren ezbear la zorigaitz biurtu ziran.

Izatez bardiñak rir,-rak.. biziaren Egilleak, olantxe, egin da, bizikeraz ez :irau bardiñak. Batzuk dirutsaren hegiheko ta aldra ::andiak ezaren zorpeko. Urteak joan

urteak etorri, zenbat atsegin alderdi batetik, ta zenbat aiñen ainbeste ta ainbeste bizitz minkaitzen ezpan korrctatik.

Bizia burruka dalarik, oiñazez ta lorrez ba-da be, bizi bidea aurrera etorri da. Jakituria zabaltzen asi zan giza-mailla barrietara ta gizonaren jakituriak urratu ditu bide barriak. Nekczka baiña langilleak lortu ditu udako opor-aldiak. Orain joan leitekez bcargiñak he jaietan edo uda-ko egun batzuetan urondoetado aizeak eta itxasoko kre-sala artzera.

Baiña ibai-aldeak eta itxas ertzak, nai ondartzak len-goak ez dira. Lengo izadiaren ederrik *ez* dabe asmetan aurki. Orain gizadia aldra aundietan dabil batetik bestera eguzkia ta kresala artzeko eskubidetan. Osasun urritua barriztuten, udako erara baltzituten. Lenagoko goi-maillak ez dira ain nabarmentsu agertzen.

Gauza polita ez da ori baiña aundiki eretxitsuarentzat. Norbera aiña beste edozein i zalea ! Nausikeriak ezin dau olakorik onartu. Asko *dira* eurak edu ben *e* ha tzuk iza tea, ikusi ezin dabenak. Ortik konturatzeko, sortzen dira on-doren arrigarri ta arhttiagarriuk.

Emen, egitia ta egillea banatu egin gura dira. Norber.: eretxiz jaunduriko gizon puntu batentzat iñoren hazter-tzaillc dala gizarte aurrean agert tea lotsakizun a undia da aurki. Jazoera ori birle ur!atik datorrela ikusi ondoren, abegi onik ez dautso egiten. Ez:tintasun bildurgarri orree-tatik eskuak garbi nai leukez.

Edozein giiz'nck an iaren, una ren, anzcaren ta atseden baten e skubidea da uka. '1 a sortzez arl uriko hizit taren eusgarri orrek, a,korcntzat ezinak ize n tiran. Zerk edo nork edo noren >:erek laju orr ra menperatuta euki etc dau gizartea?

Gaur egunean jendea, parra parra, doa, len, tegi aukeratuak bakarrik joaten ziran itxas bazterretara. Gizon guztiena da atseden, garbitasun ta osasun barritzearen eskubidea. Baiña orri zeia, zer oben egin dozu? Zu itxasora eldukeran, lengo aundikiak gordaillu aberatsetatik urten, oialak artu ta ba-doaz erri langiileagandik iges.

Erri barriak, gaur, mendi gaillurretan agertzen asi dira. Urik gabeko tokietan... Ez dautso ajolarik! Diru arazoaren usaiña baiño orri zeia ondoan ikustearen usaiña naskagarriago da. Diruak goituko ditu bear izanen goraberak, baita erri zeia baztertu be-aldectara.

Diruak ezin dau ikusi txirotasuna. Jainkoaren erria baztertuta dager. Goikeri traketsa ta aunditasun aldrebesa! Aunditasunaren edertasuna un egitea izan bearrean, aunditasunaren agerpidea beste asko baztertzcra trukatu dabe. Agiri-agirian dabit goi-beiak sortzen dituana nor dan. Baiña mesedez olakorik ez aitatu... Obena aundia da-ta, ixilik eztaidu ta gorderik euki bear da...

Bai, itxuraz, beste zerbait agertucrazi nai dabe. Barrutik bat. Loditzea, pilíatzea... Jaunkcriaren egarria ezin itzali. Lurreko ondasun geienen jaun norbera izan bear ba'leu antzera. Baiña kanpotik azal eder.

Erriaren etsai dala agertzea ez da egoki. Ainbeste ta ainbeste baserri ta uriko bcargiñen zapattzaitte data aditzen e notca, ausartegia da. Joputsa gaur egunean be, bizi, agiri da batean bestean. Lagunak jopututea, berez, lotsagarrizkoa danez, zurikeriz ta azal edcrrez osotu bear dira egiteko trakcts onek.

Bendeziño bat. Lurrak erosi ondoren, bereala unespen bat dator. Sal-el-este una izan ba'da, bedeinkatuta itzi bear da, aurrerantzean be zori onak jarraitu dagian. Nai izate txarra ez da. Baiña abadearen itzak ota erreguak ordu orretan indarrik ete dabe?

Abadea lurreko jaun orreen ta egizko Jainkoaren bitarteko jarri dabe Abadea, zorigaiztoko izango etc zara jator aundiki orreen guraria zeure otoi bider, lortzen ez ba'dozu? Nun sartu zara baiña. Euren goratasuncrako del tu ba'dau--tzuc, iruzur egin dautzue Alperriko bearra. Sinismcncz deitu ba'dautzue, bcndiziñoa emon bear dabenak daki aundikeri orrcck, diru cralgeta uri la erri ori sortzeko bear diran ondasunak, zuzen, pillatuak diran ala cz.

Lurreko lagunak alkarre gandik banatzeko diran jol:c-bidcai^, zeintzuk diran, Jainkoak daki. Ta bear nada orrcck bcdcinkatuko ba'ditu gizonki ez galdetu. Jainke,ik ori egingo etc dau?

# BEREZKO INDARREZ

Indarrak itsuak eta argitsuak, bietarikoak doguz gizartean. Bai batzuk eta bai besteak garrantzitsuak dira. Bitzuak bearrezkoak. Emen, gure inguruan dogun guztia, ongille edo txargille da gizonarentzat. Gauza, lagun eta jazokunak, guztiak ikutzen dautse gizonari.

Era onetan, bizitza au konpondukeran, indar onek gogoan euki bearrekoak dira. Ezin baztertu leitekez. Guk nai izan, nai ez, eginbear bat dabe. Bide orretatik banatu ezkero, lekuak uts geratzen dira ta lagunak ezerezean.

Galdera gogor bat datorkit, orain, burura. Gauzak curen jite dabe, sortzetik artua. Jakitunak *ez* dira, baiña, orren igille; ta gizarteko edozein gizonek be ez dautse emon lego ori. Gizonaren indarra baiña lcnagokoak dira. Nor da, beraz, orren egille gizadiarcn sorle JAUN jakintsua baiño besterik?

Bcrez diran gauzon izakerea, zuzengabckeri bat egin bage, gizonak apurtu ete leike? Gauzen berezko zuzenbidea ez da edozelan erabilteko. Arek eurengan daroe bizia, jakituri utsak emon eutsen lez. Beraz ukatu ezina ta zapaldu ezina da. Euren izatez ba, bizi egin bear dabe.

Jaunkeriak gizadiaren legeak ezin ditu ausi. Ausardikcri au daben jauntzarrak, itsututa daukez begiak edo bestelan, bear ba da, burua erotuta. Berez gizonaren onerako diran lege, gauza ta egiteak deuseztu nai izatea, sentzundunaren jokabidea ez da. Norberekcrizko arrokeriak izadiko indarrak austeko indarrik ez dauka ta almenik be *cz*.

Gizona izaki saindua da. Ikusten diran zer guztien artean gorenengoa. Lurrean beste ezerk ez ditun argia ta maitasuna ditu. Zerbait zoragarria dau. Dcikorra da. Ondo

zaindu bearrekoa da notiña, geruago ta ederragua izan dedin. Izatez, almen bi orrek, aurrez, artzen ditu, ta osotuten joan bear dabe, iñoz eten bage. Eurcnez orretarako sortuak dira-ta.

Almen orrek edertzen ez ba'doaz, nor ete da errudun? Ainbeste millak urteetan gizadia, oso, atzeratua ikusiko dogo ltza zuleetan, ta toki orretatik urten da gero be, gizona arrastaka dabil lurraren gaiñean. Bere pentsura ta bere indarren erara, ezer gitxi aurreratu eban. Baiña jakituriaren garaiak he eldu ziran, ta lagun gitxi izan dira oraindik be aurrcrapidc orretan sartu direnak.

Ez-jakiñak, atzeratuak, baztertuak dira askoz geiago ludian. Egi ganora bakoa da, ainbeste lagun curen buruak argitu nai ez dituenak izatea. Atxurragaz lurra ezi edo suagaz burdiña menperatu naiago izan dabe, jakituriagaz norbere burua ezi baiño. Egiz ezteak izan bere, griña oiñarrituak ta okerrak kendu tu notiña, arin-arin ta azke, itzi bear dau. Edu onetara cltzearcn argi ta edertasuna ez-jakiteak ez dau ikusten.

Baiña gizadiaren ez-jakin ta atzerapideak beste toki baten be ba ditu bere sustruiak. Lurreko jakitun ta arduradunak arduratu al dira gizonak, albait ariñen, ez-jakiñetik Orlen ta gcruago ta aurrcrapidc geiago euki al izan egien? Dirua, aundikeria ta goikeria cz etc ziran izan curen asmo aurregokuak? Jokera lotsagarria.

Lurraren makiña-bat egaletan erriak, etxeak eta arriak itz egin al ba'lebe, jazoera larriak esango leukez. Ta ori dala-ta, lagunak saminpetan jarraitzen dabe gizartean.

Gizadi menperatua, zer diñozu? Noz arte iraun zengike egoera orretan? Zeuk dozu itza. Zeuk. esan bear doé zu, zurea da-ta, eskabidea. Zure izatearen bear izanak esé katzen daben eran, bizia zuzentzen ez ba'da, samiñak ez dira kenduko, aragia zauritua izango da, giza gogoa zapalduta dagon bitartean.

Gero, asko dira, aurrez aurre, jarten direnak. Bide ori ontzat artu ezin dabenak. Gizadiaren deia da. Berezkoa. Batzuk, zergaitik izan bear dabe geienen menperatzaille? Ta guztiak, zergaitik ez dabe emon bear curen eritxia, guztien onerako?

# I ZPARRA

Euskal giroko albistcak dira. Sail onetakoak izan ezkero, beti, dabe euren gatza inguru batzuetan. Emen dabilétzat nire inguru, ziri ta ziri, ortik eta emendik, aidean, erlca lora inguruan bezela. Ni ez naz lorea, baiña bai euskaldun baserriko semea.

Baserrian jaio nintzan ta an Euskal-erria ezagutu ta beregana neure gogoa, adina ta biotza ezarten asi nintzan. Antxe ezagutu nituan neure guraso euskaldunak ta inguruko senideak. Maitagarriak jatezan ta ez nenkian zergaitik.

Basetxcan euskal giroa egoan, baiña czciako arrokeri barik. Orretarako astirik ez egoan, nire etxean mai inguruan asko giñan da. Beti, argi ikusi, nebana, egi giroa izan zan. Euskaldun basetxeko bizitza zeia ta sinismena, indartsu ta gozo, alkartuta ikusi ta artu nituan,

Berezko bidetik artutako edertasun bi onek, nigan ezker ta eskuma ta biotzean, erdi erdian, ezarrita geratu ziran. Ori dala-ta, gaur be nire izateak euskaldun bizitzan bide gabeko lotsarik ez dau asmetan. Euskaldun izatea zoragarria da ta sinismendun izatea gizontasuncz, pozez ta itxaropenez bizi izateko oso egokia da.

Era onetan artu neban enc ezikerea. Euskal girorik maite ez ebenen artean zurikeria agiri sala neritxon. Ume legez ori ikusten neban. Beste biderik es egoala ta jokabide bakar bateri jarraitu bear izan gcuntzala ezin esan. Orduan be bide ez-bardiñak ha ziran.

Zintzotasunari jarraitu nai eutsenak, erri-zaletasun bidea sinismenagaz batean eroien. Aundikeridunak ta nasaitasunez bizi nai ebenak curen munduan bizi ziran. Euskal-zaletasun aundirik ez neban oartzen edo euki be ez

euken. Erri onen izakeraz ta jakintzaz ez eben ardurarik. Aundikeria ta dirua atsegiñago ta mairckorrago jakezan erri onen goratasun ta bizia baiño.

Aldi artako euskal zaleak zirenak, erriaren gaurko maitasuna, beargiñen goratasuna, jendearen aurrerapidea, era askotara agertzen ebezan. Auzo ikastolak, langilleen alkartasuna, izparringi ta euskal errebistak ba-ziran. Era onetan bear egiten ebenen artean, alkar-kidetasuna ikusten genduan.

Sasi jakintsurik ez genduan asmetan. Euren aurretikoen jakituria, bearra ta ondo-egin guztia ontzat artzen eben. Euskal-erriaren bizia, ordukoa ta aurretikoa, jarraian, bat zan eurentzat. Erri baten edestia. Geurearena. Euskal-erriarena.

Egite guzti uncen bidez alkartasun bizi bar agertzen zan alaitasunagaz ta bizi bizirik. Solo, mendi, itxaso ta lantegietako esku-bearrak euskal izare ta geure sinismena alkartzen zituan. Bata besteagandik, ur, bizi giñan errimaitale zati aundia.

Berbeta bat erabillen arrantzaliak, nekazariak, baserritarrak, langilleak, abadeak, erriak eta euskat jakitunak. Bata besteari lotsa izaten ikusi nituan euskal giroan bear egiten asmetan nituan andrazko ta gizonezko asko ra asko.

Puntu askotan batera jokatzen eben. Ta olan, curen erriarentzat kaltegarri etziran izan onurakor baiño.

* * *

Gero, gerra ezkero, beste era bateko soiñuak belarrietara eltzen asi ziran. «Abadeen menpetik gure izkuntza atera bear zala...» taju onetako esaerak zerbait sakona dana agertu gura deuskue.

Euskera mintzaira euskaldunak erabili dabe. Euskaidunak emon dautse euskerari bizia. Andrak eta gizonak bear egin dabe euskeraren alde euren jakituriagaz, baiña guztion artean eleiz gizonak izan dira euskera geien-bat landu dabenak antziñako enda onen bizitzan.

Au iñorentzat ez da lotsagarri. Ta euskera abadeak geiago landu ba'dabe, zorionak euskal-langille orrei. Egin bear ebena egin eben. Baiña alan da guzti be, sail orretako gizonak oso gitxi egin dogula autortu bear dot. Au esan bearra dodala deritxot.

Gure erri onen biziak geiago ta geiago eskatzen dausku. Gaur eguneko garrazia bearrerako deia da jendearen artean. Ots bidezkoa ta bakarra da. Gizonaren bizia orretarako sortua da-ta.

Bizi bide bakotxak ditu bere zeregiñak ta abadetzak ha dau bere berea, kristiñau erriari sinismen bizitzan argiz ta maitasunez laguntzea. limen sartzen dira gizonaren eginbear ta eskubide guztiak. Sail onetan gizonei laguntzea un egite aukerakoa da. Gizonari kalterik egin *ez* ta zor jakena emoten irakatsi ta arazo orlan laguntzea, berez, da abadetzaren bearra.

Inguru orlan dabil baita be, erri baten jakintzari eutsi ta aurrera eroatea. Erri baten aurrean au estimagarria da. Bear ori dagianak, erri orreri bizia damotso. Ta iñungo amak bear ba'dau bere semien laguntza, gure ama-lurrek bear dau.

Abadea, zure aldetik zeure almen guztiak orbiztu ta zabaldu bear dozuz, gaur, otscinduten dituzun Euskalerriko atal guztien alde. Jakintza muela guztia janaria da ta gure erria bere nortasunari dagokion janari gose da. Guk emon geinkion iakiturizko janariaren zain daukagu. Zordun gara, beraz, *geure* amagaz. On egite askoren artean bat bearrenekoa laiñoak urratutea, argi egitea danez,

gure onai argituak bizitzaren bideak urratuko dizue norbe-*re* onerako la curen amaren bizi-biderako.

Baiña, len, aa_.atu dudan gerra osteko kezka on, orain, bizitu egin da. «/uen katcipcan lumia euki gaituzue» iñoztan bein euslca,'t; _ile batek. «Abadetza itzi egizu ta guregana zatoz» iñcta;;n gazte burrukalari batek gaurdaiño bere lenengo jarraitzen daben beste gazte zerbait danari.

Era onetako esaerak egunean-eguneango ogia dira. Zeren billa doaz 7,;:r kendu nai dabe gaurko gizartetik? Illezkerra danik lurreko gizonek ez dau *ilgo,* gu ostera ilkorrak garanez, lege orren bidetik aurrera goaz. Batzuk zartzen, besteak ilten.

Jokabide onek ekarri nai dau barrikuntza dalakoa euskaldunen artera. Baiña zer da barriztatze ori? Lengo bearrak baztartzea? Lengo alkartasuna apurtzen? Lengo sinismena Euskal-erriari kentzea? Ori baiña, zelan izan daiteke?

Millak urtecaan egin dan erri bat ta aparteko gaiztasunen inguruan, aurrera, joan dana, jakituriz, zentzunez ta gizontasunez orniduua dago. Istori bat dauka gogor niña rritua. Euskaldunen bizikerea, curen gogoz onartu ta gizaldietan eutsi ta aurrera croan dabena gaur artean.

Zer zorgin auts edo su-iximist sartu nai da erria erretako... Jauntxokería ta zapatkeria kendu nai dalakotan, gogor, otska ibili, ta norbera zapalkeririk aundienak egiten'_ ZapaIkeriok egiten dira gaiñera, erri batek beretzat daukan bide ziur bat harregarrituten ibiliagaz.

Euskaldunak, zur! Nasaikeria, nausikeria, zapalkeria, dirukeria, ona danari irri egitea, guztiok dira sasi-arteko piztiak. Bizitzan pozak eta nekeak dagoz, ta guztion buru egia izan bear dau.

# ARGIA

Argia izen ederra da ta argiaren izatea ostera, askoz ederrago. Argiak, berez, poztuten gaitu bidea erakutsiz. Eguzkiaren sorsrak n;cnJi gaiñak, ibarrak eta Itxasoak diztiraz betetan ditu. Argia da izadi ta ;izadiaren alaitasuna. Sua. Beroa. Bizia.

Argiak izadia orbiztuten dau ta izadiak argia maiter Goitik datorren urre printza uri bizi ta maitasun biurtzen da izadiaren barruan. Ta lurra, berez, erne-miñetan jarten da.

Gora-goraka agiri da inguru guztia eguzki izar gorrira eldu naiean. Bien bitartean gizadia daga, emen, beian. Onentzat dira argiak eta lurrak, alkartasunean, sortu dituen aberastasun ederrak.

Mendi gaiñean ikusi nitun, zeru urdin azpian, bildotsak, beorrak, ardiak, mosalak bedar punta barria mostuten curen arteko tegi eder baten zorian. Zorioneko Kalamua edo Max zogarria ! Usain gozozko bedar zeia eguzkiak pinduta dozu zeure gain eta gibelean. Idetzarik ederrenak jaio, azi ta eldu ziran, millaka aldiz, zure magalpean. An, dabiltzaz etxeko abere maitekorrak goizetan saltad. Aren lepoko uleak eguzkipean dizdiz egian. Ondo janarituta ebiltzezan. Beorrak irrintzi, mosalak salto, ardiak bee ta bildotsak noznai bedar jaten ta gero amaren errapera esne zuria gozartzera.

Eztegua irudian giro arek mendian. Argiak sortu zituan pozaldi arek. Ekaitzak be sortu ziran, noiz beinka, mendi inguruan ta abere nausi ta txikiak ezkortan egozan orduan. Guztiak alkarren onduan, epel giro bardiñean, trumoiak entzuten ta tximista dardarak asmetan, txakurrak bakarrik egian intziri bere beor ta artaldia zaindu nairik mendiko ordu itzalean.

Biaran,cncan, goia, barriro, urdin t<iiri zan. Laiño txiki kai, azkenengoa, ipar aizeak dardaratuta, Gorbci oslean urtu zan. Urdiña, argi urrea ta mendiko orlegia, barriro, besarkatu ziran. Ura zan giroa! Abere guztiak nai aiña janda, pago azpian gerizpetan. Ezin dabe esan baiña, ixil ixilik, maite dabe mendiko bakea. Eguzkia, zuzen jaslen jake gaiñaldera ta mendiak maitekor artzen zitun zugatzaren babespean.

i\1encliko argiak b .,te argi bat darakarst erain, h0rora. Gizadiarcn izarra. Ar gi-bide ederragoa la bcarrezku í ua. Gizonak, gazteak eta umeak dira gizadika artaldeak sortzen d,!hcz.;n erdi bildotsak. Giza-artalde ez-bardiñak cdelaren eciestiz, jakintzaz ta jokabidez. Baiña guztioi; nctit: izatez anai.

Gizadi onek m—gta bear dau. Gane izatez ztrgir ko jaioak gara. Gizonaren aimenak ez dina nola-naikoak, bereziak baiña. Almen apartekoa dogo argitasunak batzeko. jakituria, inundik iñora be ez da indartsu ta dirudunen et^ rria. Au irain aundia litzake gizonarentzat. Aita baten semeak izanik, iñork ezin kiko aita berberaren semerik zapaldu. Ez-jakiñean anaiak eukitea, zapaltzerik ogorrenetarikea da.

Buru argiak norbera ezagutzen laguntzen dau. Eginbearrak ta eskubideak ikusten. Gizonari dagokio ori. Era orlan osotzen da lagunaren nortasuna. Eginbear pozgarria ta astuna gizonaren argiak artzea. Illunean ez dakigu norantza joan. Gizadiaren zeregiña beteta al izateko, laiño baltzak kendu bear dira lenengo ta or dago gizonaren landutea.

Lenengo arazoa dau ba gizon guztiak, norberc izana argiz argitzea ta jakituriz cdertzea. Lagun argitsuak argia zabalduko dau ta jakintsuak jakituria. Gizon jakituna zuzena izan daiteke edota baita maltzurra ta norbcrekoia be. Takitun maltzur ta norberekoia gizartearcntzat zigorra da. Illuna bizirako kalte garri izanik, jakintsu norberekoiak gizarteari bizia okert u nai kendu egin lcikio. Illuna ta jakituri okerra gizadiaren tza etsai dira.

Takituri zuzena ta ongi-naikoa da gizadiak eskatzen dabena. Argi onek gizadiko inguruak argitu bearko ditu. Bear izana dagon tokira, gizon jakitun zuzena bere argiz ta laguntzaz elduko da. Ango zirkillu guztiak arakatuko ditu, ezer argitu barik geratu ez dedin; zauria dagon tokian urioa; gaitza dagon tokian osakaia ; ez-jakiñaren ordez jakituria; gaisoaren ordez osasuna ; sarr_iñaren ordez maitasuna; atzerapcna kcndurik aurrerapidea ut gorrotot u'aturik, bakea izan dagien gizadiko lagun guztiak.

Egizko argia, zintzo, maite danean, gizadiar lagunduz, jakituria damotso lagun bakotxari, ta notiña gizondu la gizona gizonago biurtuko dau.

## BIZIARIiN ESKABIDEA

Bizitzeak, berenez, naiko buru-austcrik dau. Ainbeste gora-bara ikusi ta bear-izan dau bizitza bakoitzak. Batzuk bardiñak, beste batzuk ostera ez-bardiñak. Ta aras a guzti cnen artean lurreko lagunak bizi bear dogu.

Orrenbeste arazo, gorabera ta ez-bardintasunen artean, zelan ulertu, nork alkarkidetasun egokia sortu ainbestccn cartean?

Gizonak ez ditu alnerriko bere almen zoragarriak. Adimen, maitasun ia erantzupena cz dira edozelako altasunak. iru edergaillu onek artu ba'ditu lagunak, almen onek landu egin bear ditu, Eginbear au burudun guztien ardurea da. Ez egitea koldarkeria litzake eta bear bada lotsagabeko alperkeria.

Edozelan be tresna bi onek zer egokiak ez dira, ez gizonaren bizia ta ez gizartearcna aurrera atera al izateko. lizezkoak alde batera bota ta eskua artu bearra dauka ba, gizadiari aurrcrapidca emongo dautson arazoetan. Nork egin bear dau? Orretarako gai dan almen guztiak. Gizonaren buru ta biotzak curen indar guztickaz erantzuten ez ba'dabe, aiperriko bizia dagie lurraren gaiñean.

Iñork ezin ete leikez bear onek bcreganatu, norberak nai dituan eran erabili la besteen almen, indar ta eskubideak lotu norberc gurarien erara?

Galdera onek berarizko garrantzi bar dabe gizonen artean. Nausikeridunak, beti, izan dira gizadian ta onen eritxiz, eurak ta pentsabidcan curen kidekoak diranak, lurreko arazoak zuzendu bear ditut. Gaiñcrakoak lagun pilla aundi baten batu ta euren gurarizko legeetara makurtuta euki nai leukez.

Baiña gizonen Egillearen asmoa ori al da? Nori esan ete dautso, pentsakeraren bitartez besteen nausi ta zapaltzaiIle izan bear dabela? Nori esan ete dautso goikerizl:o jokabide ori dala bizitzako egizko jokabidea?

Beste au bai ostera, argi esan euskun: Artutako aImenen bidez zintzo jokatu egizu, aI dozun guztia on egin bearrean zagoz. Lagun guztien argia ta adorea gizadiaren gorapenerako da. Notin guztiak bere almenen mailla berberatan dituan indarrak emon ta zabaldu bear ditu. Gure egikizun osoa erriari argi egitea, esku-bearrez otseindutea ta notin baten indarrez laguntzea jarri euskun. Au berezkoa da. Edozelako norbere nai izare batetik ez dator. Eta gizonaren naikeri baten bidez iñork ezin leike eskubide ta egikizun astun ori iñori kendu. Erri baten seme alaba guztien egitez batzar orren bizia, osasuna ta aurrerapidea, berari dagokion askatasuuean izan ta aureratu bear dau.

L g ezaba bat da ta arek emoniko eskubidea be bat da, bizia. Gu bizi orren gaizkatzillcak gara. Guztion jakituriz ta indarrez ¡terrera crean bear dogur Ta ori galerazoten dabena lapurra ta giz-zapaltzaillea da. Izate indarragaz batera ez dea, onen aurka baiño. Gizdiaren izate lege zorrotzak, lenago edo geroago, nausikcriak ausiko dautsaz.

Gure barruko izateak alkartze au eskatzen dausku. Bakoitzaren almcnak negurtuak dira ta guk egiteko daukagun lana ertzik bagea; maitatzea, on egitea, laguntzea. Oncn bidez geure inguruko gizartea, aur r era, atera bear dogu. Guztien bizia osotuteko ardurea dogo. Au norberekeriz ra nausikeriz ezin betetu leiteke.

Nausikeria gizartearen bizi izatearen aurka berez doar Nausikeriak neu, bakardadca, besteak baztertzea zer dan, ondo, daki. Orrek norbere gogora, bakarrik, gizartea ta

gizarte araioak konpondu nai leukez. Ori g aitik erriaren semeak, alkartasunez, cskudun izaterik ez leuke nai gizarte zuzentasun arduretan.

Jende zeiak ostera, zuzentasuna, nai dau ta argi argi, ikus?en dau gitxi batzuen almen urritasuna ta norhe ekeriare a gaiztakeria.

# LAGUNDIA

Itz onek bere barruan daroa bere esan-naia. Esan-nai una ala txarra? Gizonak bere izatez, bata-besteagandik ez leuke nai banatzerik. Ez dau nai izan bear. Buru argia ta biotz maitasuna, gizonari laguntzeko diran bideak, billatu ta maitatzeko dira. Gizona ta lagundia, etxea ta etxeko gizona bezela izan bear dabe.

Jakituria, maitasuna ta askatasuna ditu gizonak bere bizitzaren oiñarri. Iru sustrai egizko onek, eurencz, itz egiten dabe. Euren barruko indarra dabe, iñork ukatu ezina, ta gaiñera, iñork iñori kendu ezindako eskubidea.

Gizonaren almenak, ando bizirik, agertzen dabenez, berez, dei egiten dabe gizonaren bizitzako eskabide batzuk aldarrikatuaz. Onen aurrez aurre ezin jarri leiteke, ez naikeriz, ez rnalmutzkeriz, ezta indarkeri: be.

Bizia illezkor dan zerbait da. Gaur era onetan ezagutzen gara. Biar beste era batera ikusiko gara. Bizi au dirdai bat da, berezko biziaren izpia. Guk sortua ez dan ezkero, gure gaitik dato; gizonak beraz, aurrcrik ezin artu lcikio.

Bizidunaren eginbearra bizi-indarrari ostoporik ez ipintea da. Biziak berak bere bidetik joan hear dau. Berezko jakituri ta indarrak jaubetasun guztia dau jaungoikoagan. Onek banatu dau gugan bere berezko biziaren dizdira maitagarria.

Gure biziaren jaubea gizona ez da. Gurasoak ez dira ta geu be ez gara. Bizia eskarrez arto dogun zerbait dogo. Baiña bizi onek erantzupena daroa bereun, geure almen zoragarriak agertzen dauskuenez. Au bizi-bizirik dago geure begien aurrean.

Guztiori geure barruko dciak ots dagisku, bizirik, esanez: bizia zaindu egizu. Au da giza-semearen ardurea, bearra, nekea: artu daben izatea, oneri dagokion giro ta eskubide ta cginbcarrctan ezi ta zabaldu.

Ardurak, bete-bearrak ta eskubideak, biziak berak bere izatetik dakars. Gizonak bizia ta bere ingurua, itzalez, artu bear dau, bai, bakoitzak norbcrarentzat, ta guztiok batak bestcarentzat.

Bizitza-indar onek bere barrutik sortu dau sendia, erria ta errien gcitii dagozan aberriak. Bakarrik ezin gara bizi. Bizitzaren bear-izanak eskatzen dausku alkartasuna. Emen dago gure batzearen indar berezkoa.

* * *

Irakatsi onen bidez gizaricruntz begiratu daigun. Gizarte guztia laguntegi txiki edo aundiagoetan banatuta daukagu. Istori edo edestiaren gora-beran sortu dan bearra da ori. Berez berez, egin da' Geure izateak beraz, eskatzen dabela esan Batzuk aurreratuago doaz. Zergaitik? Aukera geiago izan dabe, noski, aurreratzeko, edota curen almen bidez zurrago jokatu dabe. Bearraren saria, or, agiri da curen onerako.

Best *e* erri batzuk curen lurrez edo pobrcagoak izan dira edo iñoren menpean egon ziran. Onulari eskasak dira bai txirotasuna la iñoren azpiko menpetasun bidegabekoa. Lene jaunmokena hear orretan chillen gizonaren duintasun t,: bizi herberaren aurka. Gaurko jakituriak orrenhesteko jorul:eririk ezin ontzat artu dau.

Tirria jaki:uriagaz askatuten da ta argiak aurrerapidea emoten dautso. Munduan aurrera egin ta aske bizi diran enrielan, gizon hakoitza be aske bizi da. Bakoitzak daroa norbere bizikerea gizonkiro. Gizatasunak eskatzen dau jokabide ori, bestelan piztia liízake bakarrik ta ez burudun ta maitasundun izakia.

Lagunak, bizitzako arazoen aurrean, bere almen guztiak baliatuko ditu. Onetarako, biziaren arotik geure eginbearrak aztertzen joango gara. Baserria ta lantegi giroa doguz geure inguruan. Gu arazo orren barruan gagoz. Biziak sortzen dauskuz geure egin bearrak ta baita euroi erantzuteko almena': be ba doguz. Berez artuak.

Bizitzako arazoak, sarri, gizon bakarraren indarrak goitu egiten ditu ta lagun bakotxa ez da naiko bear-izan orrci erantzuteko. Erncn dago gizona bere bizitzari erantzun ezin da. Bakarrik ez da naiko beretzat... Laguntzailleak bear ditu.

Au norbere izateak eskatzen dau. Beste batzuekin alkartuta, gizonen bizitzea osotuko da. Berezko legea. Baiña nor da zure laguntzaillea aukeratu bear dabena, zeu ala besteren bat? Zure bear izanen barri, zeuk dakizu ondoen. Zure izakcrea nerekin tajutuko dan egokien, zeuk dakizu ziurren. Zeu zara beraz, zeure alkartasunerako laguna aukeratu bear dozuna.

Lagunaren izateak eskatzen dau, nok nor norbere bear izateetarako laguntzaille aukeratu. Egi au, lagun bi nai lauren artean bardin da. Ta lege bardiña dago bear-izanak geiagoren artean zabaltzen doazenean. Baserritarrak billatuko ditu bere alkartasunerako ta bearrei erantzuteko hear ditun lagunak, ta burdiña lantegietako giza-seme beargiñak sortuko ditut curen alkarteak, bearrak egin eta eskubideak zaintzeko gizonen anaitasunean.

ESKUTUAN ZER DABIL?

Gizonaren bizia gauza aundia da. Bizitza onek, beronek berez, itzaltasuna eskatzen dau, Lotsa-indar ori iñork ez dautso emon ta ez ezarri ta bakoitzak be ez dau norberarentzat egin. Izatetik datar. Geugan daukagu zerbait iñork ikutu bear ez dautsona ta da geure nortasunar

Nortasun onek beregan ditu jakituria, maitasuna ta erantzupena. Iru oiñarri eder onekaz laguna gizon da, a zenbat *e* la jakituri, maitasun ta erantzupen aundiagoak izan, gizona gizontsuago egingo da. Berezko jakituri ta maitasuna danaren antz *geiago* izango daur

Emendik datorkio gizonari nortasun berezi ta arrigarria. Arreziz inguratutako etxe aundi bat bezela da gizonuren bizia. An, iñor ezin sarta daiteke. Baiña beste gauza ta jokabide guztietan lez, emen be, norbaitzuk banandu bearra daga. Umetxoa sortukeran, jaubetasun aundi ra pozgarria arta dabe gurasoak. Ume errengan beste iñork *ez* dauka jaubetasun ori gizonen artean' Aitaren ta amaren odola ta izarea daroaz ta bizitza emole orrek berarizko alkartasuna sortu dau guraso la umeen artean. Urratu eziña.

Ume txikiak, eurenez, ezin batiatu dira. Aren izatea la cziketa gurasoen babesean dago.

Aitaren izatea la amaren bizia artu ditun aurrak, guraso orrenganako berezko deia dauka. Umearen izatea ta bi: a, ortxe, ()solaren dita. Aita ta ama ikusiko dita ta eurei entzungo dautse. Areek lez iñork ez dautse itzik egingo. Itz orrek maitasuna dario. Berezkoa ta berezia, aitarena ta amarena.

Umeen ardurea ta aginpidea gurasoena da. Aitak eta amak azi ta *ezi* bear dabe, egiz eta zuzentasunez, euren

umea. Semeak gurasoen maitasuna ta argia ukatzen ditu. Berezko *legea* da, guk asmau gidaikena baiño, amai barik, sakonagoa. Umeak gurasoen esana egitzat artzen dau.

Gurasoen eginbearra da ba, curen umeei egizkoa dan irakatsia eurei. Biotza ezi ta burua argitzen aleginduko dira gizonen egizk_> jakituri argiagaz. umea ezin itzi daiteke bertan bera, ez-jakiNean. Bizitzako arduretk au eskatzen dau, ta baita umcaren almcnak be, al danik ezikuntia onena, oarraziz, eskatzen dabe.

Guraso :;iuistedunak, eurenak dituen umeak, kristiñau sinismenaren erara tziko ditut. Euren c,kubidea da irakatsi ori umeei enwtca. iFa norbere sinismenai, egiz, eranizan nai clí a nak, irakatsi ori kristiñau danez, bete egin bear dau. Kri;linautzaren nortasunak eskatzen dautso.

Orain, emnikearcn ondorean batzuk ikusiko doguz.

Iñork ez dauka eskubiderik auzoko umeen gain, aren gurasoai: emonda izan ezin:. Gaur egunean ostera, besteei lotsea eskatzen jaken garai onetan, .luzeko etxean sartu, ta an, narberak nai dabena egiteko griña gogorra dago. Zentzun-,euhekeri oni nork edo zerk d_ :notso indarra?

Milla eratara, gizartetik jainko izena kcadu hear dala entzuten gagoz. Iñoren urneekin be puntu orretan, nasai, nasai, sartzen dira, aren ezikuntzaren eskubidea eurena balitz bezela.

Euskaldun kristau gurasoak, zuekin diardut berbetan. Begira nora bialtzen dituzucn zuen ume txikí orrek. Ume orrek zer entzuten daben arduratu zaiteze. Zuen gogoa ez da time orrek siniste barik aztea. Beste batzuk ostera, zuen uste onean eskua urur, larregiz ta maltzurkeriz, eta Jaungoiko izena ta maitasuna kentzen bizkor dabiltzaz umeen barrutik.

Curaao.k. Tainko-ezeko asko dabil zure errietan. Suspertu aibait ariñen ta zuen sinismen gisara azi ikastoletan ume maite orrek zeucn kristiñautasunaren erara.

# MIINGAIÑEAN

«Nigaz ez dagoana nire aurka dago», Kristok esan eban. Orain Kristogaz nor dagon, osoan, utsik barik esatea, gauza erreza cz da. Maisu onekin artu-emonean, ondo, egoteko, jarraiko baldintza kondiziño onek bear bearrekoak ditugu. Kristogan sinistutea, Arekin itz egitea ta gure egiteak Aren irakatsi ta bizikereagaz, ondo, eta bizitasunez, gure bizitzako jokabidetan egiztutea.

Azkenengo denporaldi onetan ardura aundiak dabiltzaz Kristo baztertu nai ukatzeko. Lagun batek bere burua banatu legike Kristoren sinismenetik. Au iñori ez dautsak opa. Baiña milla eratara, nai itzez nai periodikuz beste batzuei, askatasun eta eskubide osoz daroen sinismena galdu eragiten ibiltea, ez deritzat zuzena.

Gaur egunean agiri dan jokabide onetan jende zeiaren uste ona ondatu bearrez al dabiltzaz? Norberak baiño gitxiago dakiela uste danari aundikeri batzuk bota ta kalte egitea, ez da gaitza. Beste batzuetan, demagoji petral baten bidez lurreko edertasunak jarten dautsez aurrean Kristoren irakatsia gizontasunaren aurka ba'lego bezela. Onan dabil batzuen jakituria Euskal-erriari gizaldietako Kristoren sinismena, erritartasuna ta gizontsun jatorra kendu nairik ete?

Lagun biren arteko adiskidetzak, lenengo, eskatzen dabena sinismena da. Lagun biak, batak bestearen leialtasunean sinistu bear dabe. Zintzotasun ori oiñarritzat arturik, batak bestearenganako uste ona izanik, adiskidetasun sendoa sortu ta biziko da lagun leial orren artean.

Euskal-erriak menderen mendetan Jainko ezilkor ta maitetsua sinistu dau. Gizona bakarrik ez da izan naikoa, gizonaren bizia azaltzeko euskaldunarentzat. Orain ager-

tu dira, bat batean, etsipen bidegabekoz ta atnorru zitalez gaiñezka ba'legoz bezela, Jainko sinismena gure lurretik kendu nai dabenak.

Gure euskal-asabak sinismenari ta *erri* maitasunari eutsi eutsen. Ta baita erri onen jakintza ta aurrerapidea eurek zabaldu eben giro onean.

Bigarren; gizonak itz *egin* bear dau bere antzekoekin, orretarako jaio da-ta giza-semea. Itz-bide barik ez genduke ez gizontasunik ta ez aurrerapiderik. Era berean baila he euskaldunak itz egin dau bere Jainkoarekin etxean bezela euskal lurraren edozein ataletan, itxasoan, mendian eta lantegian.

Irugarren; orain artean euskal-gizonak, e,itez be, bere gizentasuna ta sinismena, sendoro, agertu ditu, Gure guraso ta aurreckoen bizia erreza ez da izan lurrean. Burrukarik aski izan dabe. Buruz eta beroz, ondo, negurtuak izan dira aren almenak. Baiña gaiztasunetan etziran koldartu ta bizitzako arazoei arpegia, gizonkiro, emon eutsen. Gogorkeriz arto zituenean, etziran amorruz jantzi ta anaien aurka burrukan

Gure aurrekoak la aren jarraitzaille direnak, askok eta askok, Jainkoa maite izanik, era berean erria maite dabe kemen osoz ta odol beroz. Gauz bi onek *ezin* eikiezan eta ezin dizue, iñola, banatu. Ori dala-ta, erriaren bizia edertzen, zurki, alegindu ziran eta dira, len eta orain, ta erri jende langillcriaren arazoa, jakituriz, zuzenduta egoan, aldi aretan ezagutzen zan beargintza zuzentzarik onena bezela.

Ori da gizontasunari erantzutea ta Jainkoari men egitea. Anaiaren onaren billa dabillena, ori ongillea da, jende zeiaren iaguntzaillea sinismenaren bidetik doa. Gaur oste-

ra beste bide batzuetatik jean gura da jainkoa kendurik, baiña era batera doaz baztcrtzen baita be, gizontasuna, maitasuna ta gizarteko artu-emon bidezkoa.

Nausikeria, gogorkeria ta dirukeria mundutik kendu nai dira, jendea albar endoen bizi dedin ta gizonak bakarrik ezin dau ezer egin. Lengo zuloak kendu nairik, zulo bardiñetan sartzen dira, sarri, gaurko gizonetarikoak. Nor hear da? Baztertu nai dan uraxe berbera argi ta garbi ta gogor.

## GOTZON URTEBETEGARRENEAN

Urtebete igaro da, Gotzon aiskidearengandik banatu edo ez-banatu giñan ezkero. Urrillaren amazazpian Maiñukoa ikusirik, anai onen barri emon barik, ezin naz egon bizirik.

Amaika ta erdiak ziran Meza esateko ordua. Ta ordu erdi lenago bidebarriz bidebarri t*a* soloarterik se]oarte, zearka, edonundik jendea agiri zan.

Lengo tenean ikusi genduanak egi aundi bat ag. **ti** euskun anai unen eriotz ()sacan. Aurten barriz egia sen-datuut geratu da, Egia, zuzentasuna la ona zabaltzen dituanak, maitasunaren frutua artuko dau ondoren.

Eleiz barrua ta ingurua jendez beterik egcan Kristoren ta bere erriaren etxe ondoan. Zer nai eban! Zer esaten eban errI manlInisu la gazteri zoragarri arek? Gauza bi alkartzen zitcan: Euska l-erria ta gizon balen zuzentasuna.

Jendeak bizia nai dau. Norberari dagokion bizia. Egia ta zuzentasuna emoten dituana. Maiñu mendiko igarlearen buru, biotz ta agoan orixe aurkitu eben. Pozaldian ta arrizkuan, beti, gizonen lagun izan zan egiaz argi egiten. Egia zatitu eziña ta illezitarra da ta euskaldun ogiak euskaldunak argitu hear ditu.

Euskal jendetza arek il-kutxagaiñean ipinten dan lora txortea irudian. An, artzen zan usaiña ta entzuten zan eskaria, estu estu eginda, alkartasun maitasuna z_m. Gizon on bateri erantzuna. Euskal-erria ta bere Egillea,gure lurra ta zerua bat egiñi'is ikusi nituan.

Meza amaieran abots baten bidez guztiok agurtu genduan. Agur jauna. Agur. Agur. Alkarrekin bizi gara Ana baten aurrean.

# I LLE RRIA

Kanpo santuan Gotzon'en petztsamentu eder bat egortleku biurtuta ikusi neban. Barru-barruraiño, dardaraz, sartu jatan, an, ikusi nebana ta zuri aditzen emotera nator.

Illobi eder bat, besterik *ez* lakoa, iñun *ez* dagon erakea, kanpo santu erdi erdian, aurrez aurre, *egcan*. Berezko dei bat egin eustan. Norena ete zan? Nungo aundikiarena? Baiña, Gotzon, zer sortu dozu or?

Arrituta, galdezka asi nintzan, ura zer ete zan... Azur sekia, gizon batek maitckiroz, erantzun eustan. Orain bai, Gotzon, azkenean gizonago eginda geratu zara. Guztientzat itzi dozu zeure jakituria ta maitasuna, lur s,antuan eder bat, berezia, guztientzat bat bera itzita.

On eginda irabazten da erria, egia zabalduta bizia etnotcn jako erriari ta azkenez, zuzentasuna betor Liuta dagon gizadi ta gure Euskal-errira.

# SOF.OA DA

Guzurra soroa da.
Beti kalte e^g iten dabil
lagunci,
uriari,
cizadiari.

Gizon gizonak
euzurrik ez darabil iñoz
lagunen kalean.

Leoiak,
erdiak,
laPurrak,
zuzcnbagcak
luzaluten dabe miña,
norberekeriz,
urko-laguna zapaltzcko.

Jon done Batcatzaillca
e iari bidea emoten ehillan,
argiari hcgiak zahaltzcn.

Itzari belarriak cdcgitcn.
Egi maitalari zan
Erodes ez legez.

Errcge ankerra
eskontza auslari biurtu zan.

Lotsarik bage
anidaren cmazteagaz
naastu zan, eskontza ausita
alkartu baltzcan.

Jen done egizalca,
zuz enki, zoaz,

guzurrezko alkartze ori
ez jatzu zillegi
erregeari esanaz.
Erodes asarre,
erregea gogor.
Jon done giltzapera zoaz,
egia esanagaz.
Gero Erodiasen alabak
dantza atsegin bategaz
erregea poztuko dau.
«Nai dozuna eskatu ta emongo jatzu».
Ama-alabak
Jon deunaren burua eskatzen dabe,
igarieak baiño audiagoa zanaren burua
ta azpil baten gaiñean,
griña gaiztoen opari
:a dantza sari
damotse ama-alabei.

## EGIDUN

Egidun
izan bear dau gizonak,
berez.
Baiña gu,
adizkide,
cginbearrez,
egiaren bir-seme
egin giñan
;aldara aurrean,

gizadiari
argi egiteko
on-bide guztian,

Gatza ez dedilla gazatu,
argia zanak
usan eban.

Bes telan,
gizadia zelan ḁazitu,
ainbeste lotsari ba! zen
erdi-erdian.

Baiña nork emen dautso
on-eritxia,
lurrean, arre-arre,
nausi jarri dan
txarkeri guztiari?
Ta zu, Igarlea, ixilik?
Non da zure aidarako zi.ia,
Jaungoikoaren aurrean
emondako itza?
Gaur,
kemenik *ez* al daca,
ots egiteko
argiaren alde,
lapurrak ostu ez dagien
gizonen
duintasuna?
Antxiña,
gizon maltzurrcn jo kabidea
egi indarrez agertu zan
erriaren aurrean.

Ta igarleen udalak,
bero-bero,

gorritu ebazan
Isrraelgo
lur zoragarriak.

## BESTE

Beste gizon arek
zurkeriz diardue.

Gizatcgi aundi bat
aurrean daroe
curen naietara.

Egirik ez dabe.

Baiña euren ardurak,
dirua,
entzutca,
nausikcria,
bizitza asmo-bidetzat
jarrita,
ende, balia tzen dira.

Bestearen egia,
gizon danez,
erriz,
gogotan artu bage,
norberc atsegiñez,
guzurrez,
gizonaren duintasuna
oinperat uta,
nora goaz
orrenbeste ausardikeriz?

Jainko itunak
gizadiatzaz jaubetu nairik,
ezer ez dana,
guztiagaz jaubetzen;
ta biziaren ardatza, egia,
guzur miñetan
aidean.

Gizona,
aren e kubideak,
bere egia
ontzat artzeke,
barrabaskcriz,
erabili dau
lotsarik ez eban
jauntxoak.

## GIZON

Gizona.

Eskubideak.

Luter King.

Eriotza.

Gizonak lurrean ditu
bere eskubide
kendu eziñak.

Luter King'ck
siñismena
*eta*
_itXaroPena

rr;

eukazan
gizonen cskub i^iet.an.

Argi bat erutan
ixiotuta
maitasunaren garragaz
biotzeko odolaren
barro gorrian.

Gizonak zapalduta
ezin
ikusirik,
maitasun garrak
OtS
egin eutson
notiñarcn duintasun alde.

Bakez baiña. beti, indartsu,
kalera
urten zan,
anaien karrazia entzunda,
gizonaren gizontasuna
guztientzat
bardin,
izan dedin
eskatzen.

Bere bizitzaren arrizkua,
ziur,
ikusI eban
etsaien eskuetan.

Baiña askoren bizia
maitagarri jakon
zuzentasun bidean.

Ta zintzotasunak
croan eban
anaien alde
bizia opaltzcra.

## LEGEZKO

Legezko zuzentza...
zuzena daiteke...
okerra izan etc legike?

Gizon legclariak,
beti, egizkotzat artzen dau
bere legea.

Griñen indarra,
txarra ta gogorra
danean,
gizonak
oker jokatu dabe,
gizadiko errien
eskubideak zapaltzen
Kristok diñoanez.

Gizona cz da, beti, zuzen,
gaiztoa, sarri, izan da.

Griña baltzarcn
indarragaz,
sarri, ezarri jakez
errieri
lege gaiztoak.

Gizon aginpidcak
edena, sarri, croan dau
legearen barruan.
Gizonaren
egi crantzupenaren
aurka doa.
Orra burruka.
Legea da
ta Iegc txarra,
gizonaren aurka doana,
eskubideak kenduta
katcipcan lotuz.
Gizona,
legclarIa
clantxc doa
jaungoikoaren aurka,
jaunaren semeak
zapaldu ditu-ta.

## GAUR

Gaur,
siñistcduncn artean
nago.
,jaungoikoa.
Bcrc irakatsiak.
Gizona.
Oneri dagokiozan
eskubideak...
itzalak dira.

Gizonen buru da,
indarren indarra,
jakituriaren jei i;un
berez dana,
ut ,u h(steun mill(iti;;
gora
egia danaren
a?"ra l l l e.

Ta gUtadia
ain trnl.ctz
ceirik sotillct:uk,
Janari (mena,
ogeI LIZaldItan
artuta.

Zer gura gu
egidun
ala
guzurdun?

1?ririk ederrena:: arturt,
eizadia zelan cien daiteke
dagon baltz une cnel.,n?

Siñistedun guztiak
siñisten etc dabe
Jaungoikoagan?

Azalez siñismcnari baietz...
zer etc dirautse barniz
Jaungoikoari
eta eleizari?

Gizonaren eskubideak
Jaungoikoagandik datoz,
eleizak diño.

Beraz kendu eziñak.
Oi, zelako zigorrak
artu bear dituen,
egun baten,
gizonen eskubide
zapaltzailleak ! ! !

## I GARLEA

Igarlea,
zuk ikusi dozu
Jaungoikoaren bidea.
Egi berbera asmau dozu,
maitasun garrez,
zuzentasun egarriz,
azkatasun indarrez
bakearen bide tan.

Igarlea,
zu abade ziñan
erri txiki batean.

Zorioneko miiña !
Egi zelaian
bazkatu zenduan
zeure artaldea.

Igarlea,
zu gotzain ziñan
beargiñen uri buruan.

Egiaren dirdaigaz
argitu zinduzan
gizon erantzupcndunrn

barru zukondoak !
Egiak ikutu eutsen
barru illuncri,
gogo arroeri,
biotz zekeneri.

Olako jaungoikorik,
egizkorik,
ez eben nai,
ta zuen gain jausi ziran
egurrak eta tximistak
aiñcnik gogorrenekaz..

Igarle ori ondatzaillc,
:garle ori erri naastaille,
ots egien judarrak.

Ta gaur zer !
Jaungoikoaren irakatsia
agertukeran,
gizon maltzurrak
ez dau entzun nai
egiaren zuzentasunik.

Ori-gaitik antxiña,
igarleak il ebezan,
ori-gaitik gaur
igarleeri zer...

## LAGUN

Lagun guztiei
zor jake egia.

Notintasunak,
berez, eskatzen dau,
gizonen alde
eskubide au.

Zer ikusi dogu ludian...
lagunak atzera...
erriak ez-jakiñean...
jauntxoen pentzura
jopuen bizikera

eske dago,
egiaren gosez,
ta jauntzarrak egiaren ordez,
ez-jakin bidez
menperatu ditue
gizadiaren zatiak
ludiaren zoritxarrez.

Gaur ilten asarrez,
guzur eta illunpean,
......................................................
bizi izan bearrak
eragindako gorrotoen
samiñez.

Iragar bideak !
Lurrak minduta dagoz,
ainbeste odol ikusita,
curen erraiak
guzurrez gorritzen.

Odolak deituko dau
ordu gogorrean.

Egia deika dago
gaur bertan.

Eta ez da zabaldu gura
norberekeri maltzurraren
lotsabagekeri-arren.

Egia, gizonen eskubidea,

Jaungoikoa dozu egille
ta gizon norbcrekoia da
zure zapaltzaille.

## NAIKERIETAN

Naikerietan,
jauntxoak agintzen,
ikusi nitun
orrien buruetan.

Erriak azpian,
ixilik,
ez-jakiñetan.

Jauntzarren lotsagarria...

Asarrea sortu jazan
barruan,
berez,
berezko eskubidea
zapalduta ikusirik
erriaren biotzean.

Erria lotsatuta,
balioak galtzen,
baiña gorrotoa irakitan,
egun baten,

oillarrari gangorra austeko
nork daki, nun, zelan,
odol gorritan.
Noz esnatu bear gara...
noz ikusi bear dogu
lagun guztiok
bardiñak garala
gizonen eskubidetan...
Gizonak
erria
osotu dogo.
Gizonak,
oscan,
geure bizitza,
kateiak apurtuta,
zuzendu bear dogo.
Jauna bat da.
Berak ezarri dauskuz
geure barruan,
errIak zuzentzeko
oiñarriak ;
adimena,
borondatea,
ta azkatasuna.

## BIZIA

Bizia,
zcurez,
izatez
ain indartsu zara,
bardinbagea.

*Zure* eskubidea da,
edozein lurraldetan
loratzea.
Antxe, zure sorterrien
aurkitu hear dozu,
lenen-lenengo,
bizi giroa
egiaz sendotuta
maitasun artean.
Izaeraz bardin,
odolkidc dozun,
jaioterrian aurkitzen dira
alkarrekiko lokarri
maitegarrienak.
An, izan bear dau
maite-giroagaz batean
lan-bidea egitan.
Sorlekua,
zu zara
zeure semeak
landu bear zaituna.
Ortxe daukazu
lenengo eskubidea,
bizitza aterateko
zeuri dagokizun
erara.
Aginpidedunak
erriaren onerako
sorlekuctan bizi-bideak
sortu bear dabez.
Jaunkeriak baztertu.
Lurraldc idorrak narotu.
Ta gero,

lurrak agor geratzen ba-dira,
giza-semea,
joan zindczke
lur barrietara bizi billa.
Baiña beti,
crri barria maitatuz
erritarren onean'

## EZ DAGO

I;z da ogirik,
ez dogo gizun gizonik,
ez dogo jaungoikorik,
ez dago aitarik,
zuzenbagekeria
ontzat artzen dabenik.
Ta okerkeriak
bcrekoikeriaren
erpapera
croan gura dau
bizi bidea.
Zuzenbagekeria,
arro, dabil buruetan.
Ondoren, biotzaren crraiak,
gogorki, lotzeko
bere kateipcan.
Cero gizonak,
bere alcz,
anaiari irri dagitzo,
goitik bera
zapaldutar

Gosepean dauka,
gizonatsuna kentzen dautso,
gizonari, berez, dagokion
eskubiderik
ez dautso ezagutu gura.

Txarkeri guzti onek gaitik
il zinduezan Josu.

Zure odolaren
indarra-gaitik,
lotsabageko nausikcriaren
arrokeria,
besteak zapaltzea
austu egizuz.

Zusenbagekeriaren
agindukerietatik
azkatu gagizuz
zeure ontasun
zuzenaren
egizko indarrez.

## L URRA

urra men pera! u eizu»,
jaungoikoak esan eut son
gizona rI
izadiaren sorreran.

Baiña indarrez ezin
leoi, katamotz, artz,
indartsuagoak dira-ta.

Jakituriz landu,
ta
maitasunez zuzendu bear dau
gizonak
gizadiaren bizia.
Adimena,
begira
lurbira osora,
lurra ikusi,
gizona ezagutu,
onen eskubideak
aztertu.
Gizonak
bere nortasuna dauka
hiren bidez,
azkc,
egaz egiteko,
izadiaren aurrerapenean.
Baiña gizona,
leoi pizti biurtu zara,
gizonak eta
indarraren erpapean
estuturik itteko?
Baina gizona,
otso pizti egin al zara
zeure anai diranak,
ain gorroto biziz,
etsaitzak arturik,
azpian zapaltzeko?
Baiña gizona,
artz biurtu at zara
zeure gose asezkor ta basatiz
anaieri bizia kentzeko?

Gaizkatzaillea, Jaun egizkoa,
gizon otso, artz eta lcoictatik
gizadia gaizkatu egizu.

## UGANDA

Uganda,
zure gizon batzuk
egia viran.

Uganda,
zure beste gizon batzuk
guzurra viran.

Gizon zintzoak,
egia maitatuz,
zuzentasunez cbilzan,

Jaungoikoaren jarrai;
gizadiarcn otsein
erri giroan.

Gizadian,
betiko egiaren
izpi legez,
gizonen egia
maite eben.

Uganda,
zure seme leialak
argitasuna nai eben
Jaungoiko argiaren dirdiraz.

Ugandarren bizia,
egitan, argituaz.

Egi gizonik
ezin ikusi
ludikeria maite ebenak.
«Zuzenbagekeria
aginpidez eta gogorkeriz
izkilloztu da».
Egia ta Uganda,
barru barrenez,
maite ebezan lagunak,
zoribageko biurtu dira
lurrean.
Lurtarrak ez eben nai
siñismen izpirik,
ta aginpidea
bere indar guztiagaz
jarki zan
anaien aurka.
Gero, Ugandako semeak
odolez gorritu eben lurra
gogai zuzen baten alde
bizi guztia emonaz.

## ELEIZA

Eleiza irakaslea,
zuri
egia
eskatzen dautsu erriak.
Ta zuk egia diñozunean,
erri beartsua,
berez, poztuten da.

Lagun abcratscri
egi-indarrak
min dagiotse.

Diruaren arra
daroe barruan
argirik nai-ezta.

Gogoz jarkiko da,
egia nai dauan elizaren aurrez,
zuzenbidea agertukeran.

Ta orain zer?
Zu,
ixilik,
geratuko al zara
aundikiak
euren diru-eirectan,
nagusikeriz, betetuta,
ixil-cra7.o nal zaltucncan?
Ta bcartsuak,
curen neke artean,
bear izan gogorrak craginda;
aldarrika,
zuzentasun bidearen
eske
datort Lozanean
zer?
Erriak
zuzentasun ta egian
Jaungcikoa aurkitu gura dau.

Oker-zalcarcntzat,
Kistoren eliza zintzoa,
beti, izango da gogor;
egizalcarentzat

Kistoren eleiza argitzaiilea,
beti, izango da
gizonen biderekusle,
onaren gose-egarri diranen
barru garbian.

## BAKEAK

Bakeak
ots zuria
dirudi
gizonen artean.
Bakea ez da bake
Izkillo bidez
atonduta datorrenean.
Bakea izkilloz,
gizona zapaltzea da
bere nortasun
arrigarrian.
Bakea
ez da oiñarritu bear
izkillu balizaren
gogortasunean.
Ez... Ez... Ez...
Iñoz bere ez.
Gure bizitzaren
bake oiñarri,
burdiña ta
asto indarra izateak,
lotsatu egiten gaitu.
Gaiztakeri alena !

Bakea itzez min gaiñean
*ta* izkillurik ilkorrcnak
burdi gaiñetan
etsai dalakoari begira.
Bake otska guzurrez,
ta iñoren eskubide zuzenak
zapaltzen
gozartuten dira
bake lapurrak.
Ez ... Ez... Ez...
Ez dogu nai olakorik... !
Egiaren argia,
zuzcntasunaren indarra,
azkatasunaren poza
eta
maitasunaren giroa
izan bear dabe
bakearen oiñarri
bizien errietan.

## EDOZELAKO

Edozelako pillatzca.
Urani,
zidar,
burdiña,
urre,
arrolio...
"Zelako leia
asmetan etc da
ondasunen alde.

Zelako nekeak
artzen ele dira
aberastasunak lortzearren...

Bideak
zelakoak,
iñoren ardurarik bage,
eran tzupena ren
indar guztia
zapalduta
lapurretako
lokatz artean.

Edozelako pilla tzea...
la lagunak,
gosez,
acarrean dirauen bitartean,
urrekumak jauregietan
aberastasunak gurtuten.

Gosea,
gaisoa,
eza,
gizonak ilduratzen,
erpaka,
dagozanean,
egiak eta zuzentzak
gaiztetsi dabez,
berez,
biziaren indarrez
bizitzaren aurka dagozan
ondasun pilloak.

Eza ta pilloa.
ezingo dira bizi,
aurrez aurre,
estenka, luzaro,
bidez, esnatzen doan
gizartean.

## KRISTAU

Kristau buruera ..
Sarri,
zaartua lez artu da
ta erri igüiñekoa.

Señorituak, ak,
ez dau entzun gura
bere naikeriei aurka
dagiotsen
irakatsirik.

Irri dagio
bai Jaungoikoari,
hai eleizari.

Errukigarri deritxo,
aldien aldi ontan,
diruen diruak,
aidean,
gizadia
darabillanean,
kistar jokera
aintzat artzea.

Diru egarria,
aginpide gosea,
nausikeria,
utsalkeria,
norbere-naikotasuna
kontuan eukirik,
eleizaren irakatsia
ezer eztiat artzen dau.
Dirudunak,
aundikiak,
zapaltzailleak,
norberekoitasunduoak
umekeria deritxo
kistar jokabideari,
txitiak arránoa
zirikatu nai ba-leu
antzera.
Txio—txio—txio,
txita errubageak betik,
karra kaarra kaarra
arrano zarrak,
egoak zabalik,
erpeak zorrozturik
goitik.

## ELEIZAREN

Elizaren deiak,
egiz, Kistorena ba'da,
gordinki,
ots egin bear dau

czpataren zorroztasunez
aberaskeriaren
urdail barrenean.
Ondasun pilloak
eta seme gosez illak,
ana zuzenaren
biotzean
ez dabe tokirik
aurkitzen.
Irain itzala da,
ugerrak jango dituan
ondasun aundiak,
zuzenbagekeriz,
pillatuta ikustea.
Ta aberastasun orretan
gozartuten dira,
buru bidez,
biotzez,
janarietan,
edarietan,
batzarretan,
mizkikr iz jc,lastuz.
Diru gcitzeak,
*aurrera,* doaz
milloie tan,
1a txiroak bardin,
e txe txikietan,
geroago 1a ugariago,
bizi eziñik,
zorrez ta lorrez,
gizatasunaren
nortasuna
galduta.

Milloidunak barrez...
Ezerez-dunak negarrez...
Eleizak, gogoz, esango dau
bear danean:
Orretarako eskubiderik
ez dago ez.

## AUNDIKERIA

Aundikeria.
Arrokeria.
Zapaltzea.
Aginpidea.
Utsalkeria,
sarri, alkartu izan dira
gizonengan
ludían.
Ta larrcgikcriak,
arin, itxutu dautsez
zuzentasun bideak.
Egiari baiño
indarrari geiago
begiratuta,
crrczki,
doaz
norbere aundi-uste
geiegizkora.
Arterik artu ezin da,
norberarentzat,
guztia azke ba'litz
antzera,

barruko arreri guztia
eden arrean agertzen da
gizonak zapaltzen
berezko eskubidetan.
I)iabruzkoa dirudi
gizon zuzenari
bere eskubideak kentzea,
indarkeriz,
sapukeri iguingarria da
edozcr asma u
la zapalduta dagonaren
gain
erantzupen hago ezartea.
Gizonak zapalduta,
eleizari entzungor,
arrokeriz, eginda,
zuzentasunik nai ez ba'dabe,
zigorra elduko jake
Gaurko zanalduak
goratuak diranean,
zapaltzaille doakabeak,
sua iruntzi bearko dabe
geroaren geroan.

## IRAKATSIA

Kistoren irakatsia,
garbi azaldua,
egiz maitatua,
zuzen betetua,
ziur da
griña gaiztocn
kateitzaillea.

Guzurlariak,
lapurrak,
erriketalari maltzur
zapaltzailleak
ez dabe entzun gura
Kristoren irakatsi zuzenik.

Euren txarkeriari,
argi egingo leuskion
egian,
ezin eutsi dautse.

Estutu egiten dirar

Larritu.

Ta kalte egiteko bideari
jarraitzeko,
nausikeriaren griñeri
janaria emonaz,
Kristo argia
azerikeri osoagaz,
gizonik zuzenenak bai'litzaz,
ondo dakie baztertzen.

Argiak
barru baltza dagertsoe.

Lotsagarrizkoa!
Ezin bizi dira.

Kirioak
ez dautse emoten
bakerik.

Ta nasai bizi izateko
nausikcríetan,
egia esango daben gizonik,
*ez* dabe nair

# TXARRAK

Txarrak ez dau izan
azken garbirik.

Illuntasuna,
naibagea,
kezkca,
lagun izan ebazan
ito bearrean.

Lengo naikcriak,
zirika illak ckiñalcan.

Ai arek illak... !
nire gaiztakeriz
JausI zIranak !
ez dautse ha_koan isten,
ito bear nabo
1a bizi naz
gala ta egun lo bago.

Loza sakonarcn barrcneu'.c
oiu samiña'_: dausrkidaz
odolctan.

Nekecn samintasuna,
il-eziñaren naibagea...
Eriotz lurrunak
il gura nau il eziñik,
geiago samindu nadin.

Len, arrokeri... ta... nausikoriak
zoratu ninduen,
gizonen zapaltzaille,
zuzenbagekeriz,
biurturik.

Gaur,
nire zalakuntza
ta egite gaizto iltailleen
erresomiñak
dirakit,
neure izate guztia
birrindu nairik.
Ezin naz bizi...
Zaurituak, saminduak, illak,
beti, ondoren, darraikide.
Bizitza gaiztoak ez dau: parkatzen.
Ai, ene gaisoa...
Zapalduak eta illak,
noz arte oiñazetu gura. dozun
nire beranduko anula?

## EMON

Gizona,
nork emon dautsu
naikerietarako
eskubidea?
Zer uste izan
Naikeri r,
iñoren kontura,
norbcre bizitza
guritzearrcn,
laguncn
edozelan,
aizetu leiiekezcia?

Bizitzak
jaubea dau
gUztiz altsua.

Nor jarki leiteke
bizitza jaubcaren,
aurka,
gizonen bizitzak ebaten
norberc naikerictara?

Norako ustea dozu,
ainbeste gizonen
bizitzaren zama
crantzupcncz beterik
zeure gain dozula?

Egurra lepoan...

Erantzupena barruan..

Arra erraictan...

Nora joan *ziñaikc*
ainbeste arrokcrigaz,
ainbeste odolegaz,
aInbeste eriotzegaz,
gizon zuzen bat
aurkitu ezin lcitckencan
bizitza jaubearen
aurrean?

Ta orain,
zelan ikusten dozuz
antxiñako salakuntza,
eaiztakcri ta iltcak,
zeure bizia
amaitzen daukazuncan?

# ZORIONEKO

Zorioneko
izan gura dau
gizon arek
lurreko gauzen anean
emengo biziagaz.
Mendia maite dau.
Itxasoa atsegin jake.
jo,asak gogoz artzen ditu.
Biotza ta lurra
bat egiñik daukaz,
bote arnasa ta ingurua
sorgindura dirudie.
Dirua,
jolasa,
maitasuna,
irri-parrez, daukaz
ames giroan.
Zorioneko aductan
ames egin dau
bart gabean;
nire diru,
nausikeri,
eta aginpidetan.
Burua, zer dakusu?
Biotza, zer nai dozu?
Izarra, *zer* daskazu?

Burua,
biotza,
izatea,
osorik,
murgIldu nai ditu
bizitzako besutzean.

Izadiko jauntXu
izango dala,
ban gabean,
arnesetan,
entzun dau.

Itxaropen 12,trrciart
esnatu da,
'unen bcgira,
izarrak
egun

## E % I N

Ezin dabe

Ezin
gaurko gizadiaren
asthíaIdi a rrigarna.

Lengo bizitza baten -;I1';.,11:
bizi dira
euren

Ezeren ui sik

Gegoak nai

'ah

Ez dakie
goizeko seiretan
bearrera joatea
zer danik,
gosez
nai
erdi-gaisorik,
sarri,
umeak asteko
ugezabaren sari zikoitz bategaz.

Ez dakie,
ume-gosedunen
ogi eskea zer danik.

Bcrezibille an dabiltzaz
bazterrik bazter,
uri aundienetako
aretoetan,
mizketuaren
naikeri Inaltzurrak
asetu eziñik.

Ezin dabe ikusi
bear izanaren deia,
etxearen iau orma zarrak,
sendiaren negarrari eusteko
gai ez diranean.

Ezin dabe entzun
gizadiaren karrazi samiña,
gizonaren leen bear-izanak
betetu barik dagozancan.

Bai, ikusiko dabe,
sutan erro guztiak
erre daitczenean.

## B A T

Gizona
norberekeriagaz
bat egin zan
uda-goien ugarian.
Ama-lurrak
errai guztiak,
oparo,
zabaldu eutsozan,
kasa guztiak
bete alan baiño geiago
emenagaz.
Zer geiango dot erain,
iñoan berekautan...
jaunc;aak.
Kasa zarrak apurtuko ditut_..
Barri aundiak egin ..
*goraiño* betctu,
ta au da nere bizia !
barrez, unen eutson.
jan
Edan.
jolast u
ecingo dot
nai aiña betean...
«Zoriaaiztokoa„ zara
entzun eban herraia:,
berari dcadarrcz
iñotzala.
Caur emongo dozu
gaiztakeri orren kon

Ludiko aundikeria,
entzun
gizadiaren
deadarra.

Gizona ez da bakarrik;
Jaungoikoa agertu da
gosedunen biotzetan,
zauridunen odoletan,
cspetxeratuen naigabetan,
illen azken arnasean.

Laster izango da kontua
aitaren orduetan.

## ARMLNT1A

Zapuztu, ito ta jan dagizanez,
Armentiako lurra,
egialde ederra zara
zabatera egokian.

Millak urteetan
gure asaba zarrak
landu zinduezan
euren indarrez
        eta
izerdiz
adimenaren
        argiz
        eta
biotz maitasunez.

Apal eta siñismentsu
ikusi dot zure eleiza
erti aundikoa.

Gizaldien gizaldietan,
zure ormetan
dago,
gizadian jazoten dan
txarkeri haltzena,
Kristo zapaltzea.

Pizti aundi bat egon
jende artean,
bere griña zatarrenek: z
pizti txikia
sama tik artu
t« atzin zarrrkaz
ari
bizia kentzen.

Nor zara zu...
noren eskuhidez dagizu
I1te zakar orI?
NI, lurreko nausIkeria naZ.
Ez daukat ezeren bildurrik.

Basoko leoiak,
abere txikiak
nik, gizadiko jaun onek,
nere kideko txikiak,
atsegiñez, menperatzen ditut,
neure griñen poza
besteen odol eriotzaz
asetu arte.

# J AUN

Jaun bi
ezin otseindu ziñaikez,
era batera,
dirua ta Jaungoikoa,
ots egin eban
Josu Kistok.
Gizarteko
arazo aundietan
jokabide ori
agertzen da
sarritan.
Leun leun,
pillatzen dira
izugarrizko dirutsak,
beste askoren odola
xurgatzcn dala
konturatu nai ezta.
Gero, jaietan,
dotore jantzita,
lotsa itxura erakutsiz,
Meza cnizutera
ardi ta azeri
naste mingarrian.
Aita Jaungoikoa,
artu,
nik beste askori kenduz,
zuri eskeintzen dautsudan
kurutzako Jesusen bizia.
Aita Jaungoikoa,
artu,
nik beste asko zapaldurik,

zuri eskeintzen dautsudan
zure seme azkatzaillcaren
bizitza saindua.
Aita Jaungoikoa,
artu,
nik besteak odolu.sturik,
zuri eskeintzen dautsudan
Kistoren bizitza odoldua.
Aitak ez dau entzun.
Jaungoikoak ezin nastau
bere izena, lapurretea ta zapattzea
gizadiari kalte egiñaz.

## ESKATZEN

Bakea cskatzcn dabil gizadia.
Bakea eskatzen dau
aberatsak...
berak aitzen daben
erako bakea.
Bakea diño jakitunak.
Jakitun zurrak
bake zuzena eskatzen dau;
jakitun gaiztoak
bake maltzurra
bere gizara gizentzeko.
Bakea diño indardunak,
bildur danean,
geiago eziñik
etsai gogorraren
aurrean.

Bakea diño erriak..

Bakea, ots, gizon zuzenak...

Bakea eskatzen dau abadeak...

Ta bat da
bakearen oiñarria,
gizonaren eskubidea.

Gizonaren eskabideak
sainduak dira
batzarrean.

Jaungoikoak nai izan
ta eskatzen dituan
zuzentasuna,
egia,
azkatasuna
ta maitasuna
gizaditik urrin dabittz.

Oiñarri on barik
etxerik ezin jaso.

Zimendu usteletan
egoan ba gizadia,
ta lur guztia
dardaratuta dago,
bake barria,
bake egizkoa
nai dau,
oiñarri egizkoetan
errotuta.

# ESKUBIDEEN

Eskubideen ciñirrian
gizona zapalduta ba-dago,
karrazi egin bear dau
cskubidez... ta. .
cginbearrcz.
Orregaitik,
gizonen cskuhidcak,
dedun arauak,
izan bear dabe;
ez lagunik,
ez erririk,
zapaldurik
izan ez dedin.
Ta nausia ba'da
zapaltzaillea,
orduan,
bizia bera,
ezpaian, +_*cratzcn da.
Ta gizadia,
iI zorian.
Zer dok ;'izadia, negarmz,
cure zuria tz.ldola?
?ora begira
aria illen
ta maitx,unii )( o
ba'diiuk
lurrean?
Ez. Giz n:al: re_i zen doaz.
Itxaron egizu.
jakilo 1k almr!u bea dau
egia.

Argiak ekarriko dau
bizitzaren zuzenbidea.

Norberekeri zaartuak,
eurenetik urten nai ezta,
aletan,
burrukatuko dita.

Baiña argi barriak gero,
gogo barrietan biztuko dau
bizitza cbearcn
ZUZenta zuzia.

## DEADARRA

Gizadiaren dcadarra,
bizi-bizi,
ja iki da,
lurraren eral guztiak
as tinduz.

Egia ete da
gizonek diñoena?

Zuzena etc da
andrak eskatzen dabena?

Ainbeste milla urtean
ez-jakiñaren azpian,
gizadiak gorriak ikusi ditu,
aurrera urten eziñean.

Barruko bultzara
bercgan itoten zan
amorru baltzean,

gizon izatearen
eskabideak
jadetsi ezin da.
Au da gizonaren deia.
Gizon izan gura dau,
gizon nai dau bizi,
gizon il al izateko
Jaungoikoaren
  urrean.
Gizona
eta gizadiaren
bildurrez bizi izan da,
luzaroegi,
lotsatuta.
Au negargarria
Piztien kideko biurtuta,
berez,
Jaungoiko antzeko dana
ludi bazter nunnaitan.
Betor argia,
gizadia argitzera
egiaren argi printzetan
ta gizon eskubidetan,
erriak eskatzen daben
gisara.

## ESAN

Nork esan dau
gizona joputzarako
jaioa dala ...

Zer indarrez,
edo
zer txarkeriz,
gaur arte,
ain atzera,
bizi izan zara
gizadi mindua?

Gizartea aurreratzen,
alak alegin,
egin bear direla diño
gaurko gizon suspertuak.

Gizona gorago jaso,
berari dagokion lez
jakituri alorrean.

Nortasundun gizakia
bizitzarako trcbetu,
aurrerapidcrako gaitu,
egin bear da
adimencz,
adorez,
gizontasunez,
bere izatearen duintasuna
osotuagaz.

Lengo nausikcriak
oinpean anula euki dau
bere negurrira
giza bizitza.

Askoren ezer-eza,
dirurik eza,
jakituririk eza,
batzuen aunditasunari,

dirukeriari,
nagusitasunari
eusten egoan.

Oraingo asiiñaldia
gai-zalekcri baltzagaz
naikotu al da,
gizona bare almen guzúekaz
edertzeko
lurraren gaiñean?

## E R A

Era bardiñean
datoz
gizon guztiak
iudira
adimenez jantzita,
maitasunez orniduta,
azke,
curen giza-bizitza
egitera.

Mailla berean
agertu dira
gizon doai ederrenekaz
gizadia cdertzcra
argiz,
ontasunez,
gizontasunaren
lapur bildur bage
eskubide bardiñetan.

Buru argia
ta
biotz maitasuna
dituen ezkero,
anaitasunerako
deituak dira
lagun guztiak.
Ez dago geiago danik,
ez gitxiagorik
sorrcrako almenetan.
Gero dator
gizonaren eskua
nausikerietan.
Aldeak jarten,
besteak ezereztuten.
Jaungoikoaren eskuak
ba-dau gizartean
nork Aren naia
baltzitu.
Gizonaren alena!
Ta ori-gaitik gero
gizartea ezin alkartu.

## BATZARTUAK

Erri Batzartuak
gizonaren eskubideak
iarri ditut,
notin dan guztiak
bizitzako bideak,
egokitasunez,
aurkitu dagizanr

Guztiak bardin dira
eskubide orren bidetan,
zuriak — baltzak,
urkutzdunak ta ainbakoak,
enda batekoak nai bestekoak,
izkuntza ez-bardiñekoak,
zapaltzailleak eta zapalduak,
errikctaz ez-bardiñak,
aberatsak ra beartsuak.

Erri aundi *edo i* xikia izan,
bardiñak dira eskubidetan.

Ta zu, enda txikia,
maitasunez betea,
erri berezia,
iñoren azpian
lotuta egon arren,
eskubide bardiñak dozuz
gizadiaren aurrean.

Zure izkuntza,
zure odola,
zure bizia,
zure azurrak,
zure izatea,
zure jakituria,
gizonen ankcrkerien
goitik dagoz.

Nai ta zapalduta egon,
zu, Zeurca zara
eskubide osoz,
gizon la erri diruzunez
ludiko alkaríasunean.

## EZ DA

Iñor
ez da egongo
zigorpcan
edo menpean
lotsakizunarcn
jopu;
nola-naiko joputza
ta
iopucn sal-erosketa
dcbekatuta dagoéta.

Gizonak gizonarentzat,
otsokeraz,
sarri, jokatu dau,
giza-lege txarrcko
jardunean.

Aundiak zigortu dau
txikia ;
indar zakarrak
pizti adarrak
dirudie,
lotsabagc,
indarge dana zapaltzeko.
Laidogarria!
Gizonak,
zelan,
iñoren gogoa,
azke jaio dana,
Lotu legike
bere griñetara,
buru bidea kenduta,
azkatasuna ausita,

berondatearen indarra
ezereztuta?

Giza-semearen
arrokeria
zer da
notiñaren nortasuna
bere griña txarrez
zapaltzeko?

Doillorren sapukeria,
geiago ez dozu zapalduko
gizonen semea.

## EZ DAITEKE

Iñoz,
ezin daiteke artu
oiñazepean,
nekepean,
odolpean,
*ez* dagokion eran,
gizona
kaxkartuz.

Asmo bedeinkatua!
belaunbiko,
artzen zaitut,

Jaungoiko semeak,
euren zertan,
artzen dozuz-ta.

Gizon gaizkilleak
jarten dau
bere anaia,
ezin esandako
oiñazepean.

Giltzapean,
bakardadean,
iraiñez noz-nai,
zirikatuta,
lapur bidez
zorabiatuta,
gizonaren nortasuna
kenduta,
nai diran barro ixillak,
ostu eziñak
lapurretan kentzeko.

Ludia,
ai zure txarkeria!
Bizia betirako ondatuta,
giza-semeak
gaisotuta,
odolduta
daukazuz
lotsari baltzean,
aienaka, ilten,
lau ormaren barruan
eztalduta,
zuzentasun billa
dabiltzezenak
giza-bidetan.

## DAU

Nortasuna dau
*edozein* giza-scmck.
Jakituriak
eta
borondateak
damotse gizonari
azkatasuna.
Azkatasun it orrian
jaioten dira
crantzupena
eta
eskubidea.
E g iz, izan bere,
gizona,
zigor gai cia,
txarkcrink ezarten dautson
crantzupcnarcn
bidez;
eskubide *gai* bere,
berez,
izan bear dau
bere nortasun
zuzenaren eran.
Gizona
edozelan erabiltea
ez da zillegi;
zigorrez,
kezkaz,
nekez,
gizona artzea
gizatasunaren aurka doa.

Ta gizona bakarrik,
giltzapean, larri,
aurkitukeran,
bere zigortzailleak,
eurek nai dituen guztiak
aren gain ezarten,
izen on guztia kentzen dabiltzaz
gizadi aurrean.

Gaiztakeri maltzurra!

Gizadia,
zeureak dituzu
lagun guztiak,
ta zeure indarrez
zapaltzailleen larregikeriak
mugatu,
gizon guztien eskubideak
era bardiñean agertuz.

## D A

Berezkoa da.

Argi-argia.

Ta alan da guzti bere
ikusi eziña.

Jauntxoak
bere apokerian,
berekoiak
bere maitasun
iguingarrian,

ez dauz oneristen
gizonaren eskubide
berezienak.
Zio bage
iñor ezin leiteke
atzi,
lotu,
atzerriratu.
Lapurra, zergaitik,
gabaz,
joan ziñan
eilloa ()mInera
gizonaren etxera?
Gero gizonak ostuten,
gabaz, juan -tiran
gizon gizonaren
bizi lekura.
Zer egin dau?
Berezko legea,
sorterriaren bizia
maitatu dau.
Gizonaren bizitza t=oratu._.
Indar itsutík
gizona azkatu...
iFa ori dala-ta,
7.uzentasunagailik
gizona at:'i dabe,
ta katciagaz loto,
gabean,
lapurretan,
indarkcriacaz.
Illuna, zu, al zara
]apurren jagolca?

## BARDIN

Bardin gara guztiok : gizon.

Sortzez doguz eskubideak
geure burua
jagotcko
etxean eta gizartean.

Bizia saindua da
norbere bizitokian.

Ta gizon ostailleak
dabiltzaz,
aterik-ate,
gabaren gaupean.

Egunez nai ezta,
gabaz, datoz
lapur gibara,
indarrez,
gogorkeriz,
iraiñez,
gizona zapalduta
croat era.

Nora?

Iilunpera.

Zigorra emotera.

Ta laguna
milla eskubideen jaubea,
i,aiñez beteta ,
esku:tk burdiñaz lotuta,
ixilik,
egon bear.

Bere alde
nork egingo dau
karrazi
ausitegian...
guzurra ta gorrotoa,
zuzena apurtzeko,
alkartu diran
giltzapc illun barruan?
Gizonak
bere burua jagoteko
eskubideak dit u,
etxean eta ausitcgian,
baiña beste gizon arek
ostu dautse guztIa,
gabaz,
illunaren
lotsabagetasunean.

## ARTZ;

Iñor ezin daiteke
gaiztotzat artu,
errutzat
ezarten jakon
gaiztakeria,
zuzenbidez,
agertu arte.
Legez,
ausi agirikoan
burua zaintzeko
bide guztiak
emon bear jakoz.

Egi ederra zara,
gizadi guztia
gaizkatzeko aiñakoa.

Baiña zer da,
begiak dakustena,
gizonen negarrak,
gorputz zaurituak,
bizitza apurtuak,
ezeren eskubide bage
nai dituen
txarkeri guztiak
botaten dautsez arpegira
Estutu.

Lotsatu.

Miñak ezin ditu esan
giltzapeko íliuntasuncan
gíz^;nck jasan dituen
ankerkeriak.

Gizadia,
lege bidez,
erdi-illik dogu.

Zure semeari
en tzuioz u.

Ncrbcrekoicn nausikeriak
argitu,
zuzenbidea artu dagien,
ta euren maltzurkeriak
epailari izan dakioezan
il baiño len
emen lurrean.

# UTSEN

Legepean
sartzen ez diran
utseen eta
egiteen
eran
iñor ezin daiteke
epaitu,
gitxiago barriz zapaldu.

Utsa *egin zan* aldian,
legeak agintzen eban
gisara,
gizonaren uts egiteak
ebatziko dira.

Eztana,
zelan baieztu leiteke
gizonak
bere miñaren
azal utsagaz,
guzurraren bidez
gizona epaitu
eta
zapalduz?

Norberekerian
begiak jarrita,
noz arte,
gizonak iraun bear dabe?

Norbere poltzara
eta bizitzara,
norbcre maitasunera
legeak jarrita,

egizko ta bidezko
al da,
errien eskubideen bizia
epaitzea,
besteen lepo gain
egurraren zigorra
ezarrita?
Norbere naikerira
jarririko legea,
egizkoa ete da,
gizona zuzentzeko
gizadiaren elburura?

## EDONORI

Edonon
dabilkio barrua
zuzentza billa,
karrazi gogorra
otska.
Berezko indarrez
deitzen dau.
Gizonena da.
Geugan eta
gurez goitik dau
bere izatearen sorkuna.
Dirua,
naikeria,
indarra,
norberekeria,

batzuk nai dabenez,
ezin izan daitekez
zuzentasunaren oiñarriak.

Era orretan dabiltzaz
gizonak
berezko zuzentasun garbia
*curen* zuzenbagekcri gaiztoagaz
birrint zen.

Lagunak miñetan,
jazarpenetan,
odolctan.

`Ta jauntxoak
indarkcriagaz
euren biziak loditzca
norbcre naikcrietan
sorturiko
lege izenagaz.

Siñistedunak izenez,
edozein azpiratu
nai apurtzeko
gertu dagozenak
egi t ez.

Egi, zuzentz eta maitasun ordez
indarra,
gogorkeria,
guzurra
bilin- bola ka,
ludiko naikerien
gisara.

## URRATUKERAN

Gizonak,
siñistedunak,
jauntxokeriz,
indarkeriaren arrokeriagaz
gizonen bizitzak
urratukeran,
Jaungoikoa
ez dabe maitatzen.

Aren iegerik ziurrena,
gizonen maitasuna,
apurtu daroe,
itxuraz,
erantzupen bage

Eleizaren semeak dira,
izenez,
gizonaren etsaiak
egitez.

jaungoiko Iegea
geugan daroagu
gure bizitza argitzen
egiaren indarrez.

Siñistedun jauntxoak,
nausikeriz,
gizonaren duintasuna
zapaitzen diardue.

Ta Jaungoikoa asarre...

Ta gizonak minduta...

Geroko bildurrik
ez daben gizonak,

betirako onda tzen
lurreko naikeriz
itxuturik dabiltzaz.
Nun dira areen ar zai ñak...
Semeenganako
betiko errukia
galdu al dabe
okerbideratuari
bertan bera,
betirako ondatzen
isteko?

## Z E R

Zer egingo dogu._.?
Ixildu...
Zer egingo dogu.. ?
Lo ...
Zer egingo dogo...
Itz egin...
Zer *egingo* dogu...?
Egia esan..'
Ariak. Akerrak. Otsoak...
Euren naikerietan dabiltzaz
artaldean.
Egia
curen itza
dala diñue;
zuzentasuna
curen jokabidea;
bizia

euren naikeri mattzurrera
tajutu nai dabe;
beste bizitza araurik
ez dabe ontzat artu nai.
Kristo miñean,
euren izena
bizia
eder etsiteko,
alan, bear dabenean.
Ardi lanatsuak pozik,
akerrari txaloak joten,
otsoeri deika,
ordena jarri egian
artaldearen barruan.
Kristoren izena barriz
bere agoan,
baiña aren egirik ez
biotzean.
Gero, geruago,
alkartuko ete dira artzaiñak,
euren zidar makillekaz
adar okerrak apurtzeko
ari eta akerreri
ta agin gaiztoak ausi
otso zakarrera.

## AMILTliGI

Ez dautse ardurtrik.
Ariak eta akerrak,
egunero,

Baiña nun dira
ondorengo artzain guztiak,
buruaren egien aurrean
mututa... !
Erriak egarriz.

Ta ur bizia
nork emonik ez...

Oben otska ekiñalean,
onak izateko amesetan,
ta gizartea,
iñoz etsi ezinda,
burrukan,
gosez,
ilten dan bitartean,
egizko oben !arriak
arlanduzko jauregian,
lurreko ta ez lurreko,
ederkeriagaz cztaldu,a
'izadiaren lotsakizuncan.

## ETXE

Etxe utsetan ta
bide gorrietan zear
atzerapideak eta ge,cak
triskantza ilkorra!:
egin ditue gizadian
millak urteetan.

Gaisoak gaiso,
malmutzak maimutz,
aundikiak
zapalduta euki dau
txikia,
al izan daben giñoan,
indarrez
eta
legez.
Biziaren aurka legea,
ori da indarraren
jokabidea,
nausikeria dagon
errian.
Gure lotsea! !
Ta alan bere ixitik !
Kristoren ikurriñaren
zatirik gurenena,
maitasun iegea,
beartsueri laguntzea,
Kistotar, izenez, ez direnak
artu dabe.
Diru pillatze lotsagarriaren
aurka
otska asi ziran
garrazi sendoz,
eta darraie,
gizarte zapaiduari
eskua emonaz.
Pilloak,
ugerrak,
goseak,
ilteak,

onek
dita
gu kistarron
lotsakizunak.

## ARGIA

Kristo argia.

Kristo *egia.*

Kristo zUzentasuna.

Kristo maitasuna.

Jauna,
zure lorerik cd rrenak
or daukazuz
zeugaz bat eginda.

Leiak eta maitasunak
kurut zeratu zinduezan.

Erodes ta Kaipas,
erria ta eleiza
.....................................................

alkartu ziran,
maltzurkeriz,
zu ilteko,
Zure egia zapaltzeko.

Gaurko gizadia
beste era batera
ez da gaizkatuko.

Kristoren ogiak;
zuzentasunak
nekeak,
eriotzak,
odolak
ta Kristoren izenean
aren jarraitzaille zintzoen
nekeak,
jazarpenak,
odolak eta eriotzak
amaika kurutzen artean
gizadia
gaizkatzen dabiltzaz.
Bide gogorra
ta
bide bakarra.
Baiña orrek izango dira
zuzentasunaren saria
izango dabenak
geroaren geroan.

## GEURE

Geure burua
aitatu bage,
ezin naz,
ixilik,
egon.
Almen guztia,
berari dagokion
janaria,
artzeko duin da.

Lagun batek
bere bizi-tokian,
berari dagokion
jakintza
bear dau.

Berea.

Bere erriarena.

Adimena
argi naiez dago,
biotza, gosez.

Ta gizonaren lei ori,
barruaren utsa,
bere inguruko
jakituriak izan ezik,
beste ezerk
ezin leike asetu...

Zeure sorterrian,
or daukazu eskubidea,
iñora joan bage,
gogo bizitza osotzeko
jakituriaren argi bidez.

Zeure errian zagoz
jaiotzaren eskubidez.

Almenak cmai dozuz
argi billa.

Ots orain,
gizonen aurrean,
semeen jakin-min bizia
loretu dedin
argizko gaiñean.

# BARRU

Neure barru ontan
azpalditik neukan,
burruka estuan,
urten nai-ta,
jaio ezin da,
geure artean jazoten dan
lotsagarria.
Askok aurrera,
egin gura
bizitzaren cskabidcz,
edo erriaren
nortasun arren.
Legean oiñarriturik
ostera,
geidi egon bear?
Poitsakeria ete ebillan,
bitartean,
narruak, (indo, betetan?
Gazteak itza eskatzen...
Besteak gor egiñaz,
entzun gura ez.
Batzuek zuzentasuna eskatzen...
Besteak euren erara jarririk,
pizti zakarren
anabasatzat
artu eben.
Areck azkatasuna eskatzen.
Ta jauntxo,
euren ustez on,
buriotsorrak,
azerikeriz bear ba-da,

eskubide eskaria,
baltzakeri edo barrabaskeri
jokabidctzat arturik,
ez lotsarik,
ez duintasunik bage
curen naikcrictara
lurPeratu eben,
erri-zale
eta
gizoncen
jokabide ernaia.

## I1 A DATOR

Argia ba-dator.
I?giak diztiratuko dau.
Lurrak ikusi bear dau
gizadi bizitzaren
eskabide bidezkoa.
Lengo jokabideak
eta
jauntxokeriak
barrabaskerituta
geratuko dira,
atsa dariola,
atzean.
Atzerakoi guztien
eta
norberekoi rnaltzurrcn
izenak,
or, geratuko dira,

betirako izki aundietan,
orma zabaletan,
agirian.
Gizadia aurrera doa.
Beragaz batera
lengoak lurpera doaz
euren zarkeriegaz.
Gizadi barria dator.
Beragaz batian
gaztedi barria;
la bere asmo barriak
ioratuko dira
bizitzako udabarrian.
Erncgauta ez nago.
Zarkeriekaz naikotuta bai.
Ainbeste norberekeri
gorroto jat.
Erriak zapalduta
curen izate unean,
nortasuna ukatuta
eta
gizonak ilten
dagozanean,
karrazi, gazteak,
bizi barri cbea
sortu dedin
maitasunaren erdian.

## BIAI,DU

Abadea igarle... !
Jaungoikoaren bialdu da.
Egi esale.
Jaunaren egi bakanak,
indartsu,
esan zituen
dsrraelgo igarleak
e rrien onean.
Ta guztiak,
hanan-banan,
ausi ziran,
curen odolagaz
egia baieztuteko
siñismenaren sendagarritzat.
Bildotsak ziran
otso artean.
Egiaren otsiariak,
gizadiak artu egian
egizko argiaren
zuzenbidea.
Baiña illunak ez dau nai
argirik.
Guzurrak gorroto dau
egia.
Azeri gaiztoak
zarata dagi,
maltzurkeriz,
a onari ezarten dautsoz
nai z:akeri,

guzur,
zuzenbagekeri
guztiak.
Gero igarleak
Isrraeien
odola emon bear,
soil-soii,
egiaren izenean.

## GAUR BERE

Abadea igarle da,
gaur bere,
lurraren gaiñean.
Gizon asctuak
guzurrezko igarlea
goratzen dau,
bere gisara,
itz egin eta
bide ezpaikoa
darcanean.
Aikarregaz doaz
asekeria,
guzurra
ta jauntxokeria,
txalo bizitza
euki guran
ondasunen artean.
Egiaren igarlea
beste bide batetik doa.

Goikcriak
ontzat artu nai ez daben
jokabidetik.
Abade igarlea,
egizalea,
zuzena iragarkcran,
bildots errubagea da
otsoen arrean.
Ez dabe nai egirik,
ez aren igarierik.
Igarlea irainduko dabe,
euren gisara,
nai aiña,
egiñalean.
Gero zigorra,
errezago emongo dautse,
ixil barruan,
egia ixil-erazo naiez
neke gorrien arrean.

## POZEZ

Etsaiak pozez !
Ardiz jantzitako arerioak
artalde erdian
bizi dira,
legekerietan,
jauntxoen bearrean.
Eurak nai daben erara,
nai dabena esan,
gura dabcna egin,

erantzupen bage,
iñorentzat legeak,
norberarentzat naikeriak,
orrenbesteko suberterik
ez dabe izan
otso griñatiak
bildots artean
mendian.

Lotsea zer da?
Gizontasuna nun da?
Galdukeria baiño
geiago
esango neuke
dongakeria,
otsoen bizi
biurtu dala,
guzurraren edenagaz,
euren naietara
bildotsen biziak
itoteko.

Ta ixilik egon bear!
Otso ta leoien agiñak dira
igarleen gorputzak
urunduko dabezan
lege erraustaleak.

Isrraelen
igarle bat etzan geratu,
zutik,
bere oiñen gaiñean.

# AMAITU ZAN

Igarleen zorigaitza
amaitu zan.

Jauntxoen poza,
dirua,
jolasak be
joan ziran.

Orain gauz bi
geratzen dira

lagunen lagungarri.

Igarle zintzoen
siñismcna,
nekea,
jazarpcna,
eroapena,
egia,
zuzentasuna,
poza,
argia,
maitasuna,
bakea.

Beste aldetik
zalatari dabil
otsoen guzurra
gogorkcria,
naikeria,
iauntxokeria,
indarra,
zuzenbagekeria,

galdukeria,
gorrotoa,
nasaikeria,
arrokeria
askenean
bildotsak pozik dagoz
eskerrak emoten
Jaunari.
Otsoak dar-dar,
izututa bildurrez,
barregarri.

## ZENBAT

Gizaldien gizaldietan
zenbat ez-bearkeri
nastau ete dira
gizadian... !
Gauzak baiño gitxiagotzat
lagunen bizia artu da
jauntxoen naikerietarako.
Ta etziran lotsatu.
Ez dira lotsatzen,
argia ta maitasuna
griña gaiztopean
zapaltzen.
Norberekeriaren
indarra-gaitik,
dirua pillotu nai-ta,
gizona,

bearraren jopu
ta euren aundikeriaren
morroi
biurtzen dabe.

Gizonaren gogoz,
adimen
ta maitasuna baiño
curen diru,
jolas,
ta aundikeria,
balio aurrerakoagotzat
jarri ditue.

Gizaldietako jokabidea
bide ortatik etorri da;
gizaki gosetiak
curen indarraz
azpiratuta.

Gaur, gizon bakarra
geiagotzat al dago...
ondasun oro baiño
jakituri
    eta
maitasunaren
indarrez?

Gizonak, geiago, ez dau izan bear
aundikeriaren otsein
joputsa baltzeanr

# ANTZEKO

Domu-altasuna
uxen anker baten
antzeko da.
Jainkoti ez da.
Gizonena ez da.
Iñoren izerdiz loditzen...
Besteen bíziaz
bizi gura dau.
Ederkcriz. Itxuraz.
Gizon aundi baten
ganara agertuaz,
azalkerietan,
ta barruz
gizadiaren
«bizi» gaisoa da.
Guztientzat sorturikoa,
era bardintsuan,
esku gitxira daroa.
Bera, Jaungoiko legea
ausita,
anaitasuna apurtuta,
gizadira,
berez-berez,
asarre bidea dakar
gosearen esturak
eraginda.
Bizia,
gizonaren eskubidea,
Guztiz Altsuak
emon euskun
bere antzeko egiñaz.

Bera da gure Jaube,
ta gizonak gizonari
ezin lapurtu leikio,
Jainkoaren lapur izan bage,
guztien ondasunak
norberegan pillatuaz.

Domu-altasunak
uxen bat dirudi,
gizonen bizitza,
ankerkeriz xurgatzen.

## GARBI

Jainko irakatsia
garbi dago.
Ederra da.

Zuzentasuna dau,
bere baitan,
oiñarri.

Zure burua legez
zeure kidekoa
maite egizu,
esan eta
agindu
dausku.

Or dago
ondasun guztien
bardintasuna,
maitasunaren oiñarrian.

Ondasun pillatzailleak
gizona ez dau maite;
dIru-zale norberekoiak

Jaungoikoa, egiz,
ezin maite
legike.

Ondasunak pillatzen,
larregikerian,
ta gizadía ilten
ez-bearrean,
ezin dau ontzat emen

Aitarik onenak
bere erriko
semeen artean.

Ez dago maitasunik
gizon orreen artean;
ez dago Jaungoikorik?
ondasun pittatzailtecn
biotz zistriñctan?

Bizia,
maitasuna,
otseintza
da
Jaungoikoa_

Iñoren bizia maitatuz
kidekoari lagun dagiona,
ori da gizona,
orain, da
geroan.